#240
DOAN

2026 · 11 · 04
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen



NAHIA CARRETERO:
“*Prunus lusitanica* landarearen 217 ale zenbatu nituen Otsatin, inguruko populaziorik handiena” 12-13 or.

GOTZON MARTIN:
“Beti izango dut buruan Panama, profesional mailako nire lehen garaipena” 20-21 or.





AIARALDEAN BIZITZEAREN ALDE, GREBARA

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES · VENDEMOS SERVICIO

ALOKATU edo EROSI
INFRAGORRI BEROGAILUAK



Aire mugimendurik gabeko lekuetan **azkar sortzen du beroa**

Erosoa eta segurua

Arza II industrialdea, LAUDIO · **946 43 00 42** · enkarki@enkarki.net
www.enkarki.net · @enkarki

ARTZINIEGA 7
Herritar talde batek Enartzi komunitate energetikoa sortu du
Lehen asmoa da azpiegitura fotovoltaikoa instalatzea eta horretarako hizketan ari dira Udalarekin

AIARALDEA 8
Autopista ez ordaintzeko deia egingo du AP-68 Dohainik plataformak
9.000 sinadura inguru bildu ditu plataformak bidesariak eta ordainketa-arkuak kentzeko eskatzeko

OROZKO 11
Euskal Herriko irrintzilarien topagune bilakatuko da Orozko datorren azaroaren 14an
Iaiaiai Irrintzi Taldeak sustatu du egitasmoa, eta urtero errepikatzea da asmoa

AMURRIO 20
Sandra Castaño Ilustratzaileak *Alas* argitaratu du
Amurrioar gaztearen lehen lana da hau, 5 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendua

KULTURA 21
***Oroiminaren hirietan aldaroka* olerki liburua aurkeztu du Jon Iturregik**
Blas de Otero-Angela Figuera poesia lehiaketaren XVIII. irabazlea izan zen lana

KIROLA 27
Mila lagun baino gehiago elkartu ditu Aurten Gorobel Ibilaldiak
Marka guztiak hautsi eta inoizko ibilbiderik luzeena prestatu zuten

Erreportajea

Azaroaren 11n greba orokorrera batzeko deia, Aiaraldean ere



Eskualdeko mobilizazio batekin ezaugarrituko dute etxebizitza eskubidearen alde deitutako greba orokorra eskualdean. Arratsaldeko seietan izango da manifestazioa Laudioko Herriko plazatik abiatuta, baina bestelako ekimen batzuk ere ari dira prestatzen eguna ezaugarritzeko.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Gutxi falta da azaroaren 11ko greba orokorrerako. Espainiako estatuko sindikatu nagusiek deitzen duten gisa horretako lehen dealdia izango da 14 urtetan. Euskal Herrian, aldiz, zortzi hilabete eskas baino ez dira igaro azkenekotik. Martxoaren 17ko lanuzte hartan gutxieneko soldata handitzea izan zen aldarri nagusia, eta jarraipen zabala izan zuen dealdiak eskualdean, tokiko egoera sozioekonomikoak baldintzatuta batez ere.

Oraingoan, aldiz, etxebizitza duinaren aldeko mezuek hartuko dute lehen planoa, Madrilen piztu eta Bilbo bezalako beste hiri batzuetara zabaldutako kanpaldiei lekukoa hartuta.

Hego Euskal Herrian indarrak batu dituzte ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarearekin eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistarekin. Mobilizazio bateratuak egingo dituzte hiriburuetan, eta arratsaldean eskualdez eskualde zabalduko dira protestak.

Aiaraldean Laudion izango da arratsaldeko mobilizazioa, 18:00etan Herriko plazatatik abiatuta. Hala iragarri zuten iragan larunbatean SOS Aiaraldeak deitutako agerraldian. Dozenaka herritar bildu ziren Amurrioko Federico Barrenengoa kalean eraikitako babes ofizialeko etxebizitza bloke berrien aurrean, hainbat sektoretako ordezkariak tartean (Tubos Reunidos zein Maderas de Llodioko langileak, pentsiodunak, osasun langileak, merkatariak eta beste hainbeste).

> Aiaraldean Laudion izango da arratsaldeko mobilizazioa, **18:00etan Herriko plazatatik abiatuta**

Bideo bat grabatu zuten bertan, greba orokorrera joateko arrazoiak aletzeko, tokiko ikuspegia txertatuta. Izan ere, grebaren tokiko deitzaileek uste dute etxebizitzaren krisiak "gogor kolpatu" duela Aiaraldea ere. "Ez dago etxerik alokairuan eta, daudenean, prezioak ordainezinak dira", salatu dute. Hainbat zifra jarri dituzte horren adibide gisa: "500 euro baino gehiagotan azpi-alokatutako gelak daude eskualdean, 2.000 etxe huts baino gehiago, ia 2.000

lagun Alokabide eta Etxebideren zerrendetan...".

"Higiezinen arrazakerian" ere jarri dute begirada, nabarmenduz etxebizitzaren problematikak ez diela berdin eragiten pertsona guztiei. Agerraldian azaldu zutenez, "arrakala" bat dago jendarteko sektore ezberdinen artean eta, horren ondorioz, problematikak gehiago eragiten die "pertsona migratu eta arrazializatuei, emakumeei, gazteei edota pertsona ez-heteronormatiboei". Horren aurrean, politika publikoak exijitu dituzte, "errentismoarekin eta negozioarekin bukatzeko". Merkatuan esku-hartzea eskatu diete erakundeei, "alokairuak jaitsi, etxegabetzeekin amaitu, espekulazioa debekatu eta parke publikoa defendatu eta handitzeko".

Deialdi gehiago egunean zehar

Ekimen nagusia arratsaldeko mobilizazioa izango den arren, grebaren eskualdeko deitzaileak beste zenbait ekimen prestatzen ari dira eguna ezaugarritzeko, egunotan burutzen ari diren asanblada irekietan ezaugarritzen ari direnak.

Aiaraldea Kooperatiba Elkartea

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak bat egin du etxebizitza eskubidearen aldeko greba orokorraren deialdiarekin. Horrenbestez, kooperatibaren egoitza soziala den Faktoria itxia egongo da azaroaren 11n, eta gainontzeko jarduera publiko guztiak ere bertan behera geratuko dira. Kooperatibako langile-taldea ere aho batez batu da deialdira eta, horrenbestez, ez du lanik egingo egun horretan.

Aiaraldea Komunikabidearena izango da salbuespen bakarra. Bertako kazetariek lan boluntarioa egingo dute grebaren jarraipena egiteko, eta horretara baino ez dira mugatuko.

Azaroaren 11n, berriz ere, Aiaraldeko lantegiak hustu eta kaleak hartuko ditugu pobretze eta errentismoaren kontra!

Izaskun Garcia eta Maddalen Muguruza
LAB sindikatua

Martxoan 1.500 euroko gutxieneko soldata propioaren alde greba arrakastatsua egin genuen eskualdean. Langileon pobretze eta prekarizazioaren aurrean, bizitza duinak bermatzeko aldarrikapena egin genuen. Izan ere, pobretzea ez da soldata baxuen ondorio hutsa: lan baldintza kaskarrak, oinarrizko baliabideen garestitzea eta etxebizitzaren negozioa ere badaude horren atzean.

Milaka langilek eta herritarrek, bereziki emakumeek, migranteek eta gazteek, etxebizitzarako sarbidea ukatua dute. Horregatik, LABen maizterrak antolatzen ari gara etxebizitzaren negozioari eta gehiegikeriei aurre egiteko. Lan baldintzak ez ezik, bizitzaren prekarizazioan eragiten duten gainerako faktoreak ere borrokatu behar ditugulako.

Aiaraldean, pobretze prozesua industria-enpleguaren suntsiketak eta beste sektoreetako prekarizazioak areagotzen dute. Enpresa itxierak, kaleratzeak eta lan baldintza prekarioak ez dira kasu isolatuak: eskualdeko ehun ekonomiko eta soziala ahultzen dute. Ondorioak ez dituzte soilik zuzenean kaltetutako langileek pairatzen; lantegi txikietan, tokiko merkataritzan eta zerbitzuetan ere eragiten dute, jarduera ekonomikoa eta kontsumo-ahalmena murriztuz.

Egoera horren aurrean, enpleguaren eta lan baldintza duinen defentsan atera gara kalera, gutxieneko soldata propioaren aldeko greba eta mobilizazioak egin ditugu, eta SOS Aiaraldearekin batera maizterrak izutu eta etxebizitzetatik kanporatzeko saiakeren aurka mobilizatu gara. Enpleguaren suntsiketak, prekarizazioak eta etxebizitzaren negozioak pobretze estrukturala elikatzen dute, langile klaseari bizi duina garatzeko oztopoak ezarriz.

Hainbatetan aldarrikatu dugun bezala, Aiaraldean lan, ikasi eta BIZI nahi dugu. Horretarako, enplegua defendatzea, sektore guztietan lan baldintza duinak bermatzea eta etxebizitzaren larrialdiari egiturazko erantzunak ematea ezinbestekoa da.

Langileok ez gara besoak gurutzatuta geratuko gure pobretzea eta prekarizazioa normalizatzen diren bitartean. Errentismoari, negozioari eta kapitalaren agenda erreakzionarioari aurre egingo diegu. Gure eskubideen alde borrokatzea faxismoaren aurka borrokatzeko errezetarik onena delako.

Azaroaren 11n, Aiaraldean, soldata eta etxebizitza duinak aldarrikatzeko greba orokorra egingo dugu: patronalari gutxieneko soldata propioa exijitzeko, higiezinen patronalari langileon bizitzen kontura aberasteari uzteko eta EAEko zein Nafarroako gobernuei errentismoarekin eta espekulazioarekin amaitzeko neurriak eskatzeko. Gure bizitzak, gure lana eta gure etorkizuna ez daude kapitalaren interesen menpe!



Ni, banoa!

Silvia Sanchez
CCOO sindikatua

Greba orokor deialdi honekin, CCOOk langileon bizi baldintzak erdigunean jarri nahi ditu. Etxebizitza horiei eragiten dien agente nagusietako bat izanik, ez da bakarra, horregatik, "Soldatak. Etxebizitza. Prezioak" leloa aukeratu dugu oraingoan.

Batetik, soldatek gora egin behar dute. Izan ere, Espainiako datu makroekonomikoak onak badira ere, horiek ez dira gerora familietara ailegatzen. Edo, ailegatzen badira ere, askoz gehiago igo da etxebizitzen prezioa. Ildo horretan, azken urteetan, lanbidearteko gutxieneko soldatak %66ko igoera izatea lortu dugu. Horregatik, beste %7ko igoera aldarrikatu dugu horrentzat, hilero 1.500 euroko gutxieneko soldata 12 ordainsaritan suposatuko lukeena.

Bigarrenik, etxebizitzen gaineko neurriak behar dira, etxebizitza merkatu ondasuna izateari uztera zuzendutakoak. Etxebizitzak, premiazko ondasuna izanik, merkatuaren logikatik kanpo funtzionatu behar du. Horretarako, epe motzeko, ertaineko eta luzeko neurriak ezarri beha dira. Egia da Euskal Erkidego Autonomoak Estatuko legediarik aurrerakoiena duela, baina argi ikus daiteke ez dela nahikoa eta neurrietan sakondu behar dela etxebizitza ez dadin langileontzat arazo bat izan.

Hirugarrenik, prezioen gainean eragina izango dituzten neurriak ere behar ditugu. Nazioarteko egoera politikoak, jada, ondasun jakin batzuen prezioen igoera eragin du, batez ere energiarenak, eta horrek, premiazko beste produktuen prezioen igoera. Enpresek mozkin errekorrak dituztenean, onartezina da prezioen igoerak zuzenean hiritarron gainera botatzea. Horietan ere eragin nahi du greba orokor honek.

Jakitun gara deialdi hau une esanguratsuan datorrela, hauteskunde orokorren atarian, baina horrek zera lortu behar du: hauteskunde hauen ardatza bizi baldintzak izatea eta ez Ceutan gertatutakoa edo bestelako ustelkeria kasuak. Horiek ere garrantzitsuak dira, baina ezin dira kanpainako gako bakarra izan.

Greba guztiak dira unean uneko testuinguruaren ondorio eta, hortaz, greba politikoak dira denak, oraingoa ez da apartekoa. Ez da kasualitatea greba deialdia orain iristea, Parlamentuan etxebizitzaren inguruko bi dekretuk porrot egin dutenean eta, are garrantzitsuagoa, 87 urteko Maricarmen Abascalen kaleratzea zuzenean ikusi dugunean. Bi horiek, sua piztu duten txinpartak izan dira, baina arazoa aurretik dator.

Grebara joateko arrazoiak baditugu. A11 Ni banoa!

Erreportajea

Azaroak 11, Greba Orokorra!

Kinnari Ladron de Guevara
ELA sindikatua

Etxebizitzaren krisia ez da berria, erantzukizun instituzionalik ez dagoenez, Euskal Herrian eta beste lurralde batzuetan egindako mobilizazio masiboek etxebizitza eztabaida publikoaren erdigunean jartzea lortu dute. Langile klaseak erosahalmena galtzen duen bitartean, jabe handiek, inbertsio-funtsek eta enpresek negozioa egiten jarraitzen dute oinarrizko ondasunekin.

Ezin dugu onartu etxebizitza gutxi batzuentzako negozioa izatea. Aldiz, prekarietatearen, ziurgabetasunaren eta bazterketaren iturri bihurtzen da gehiengo sozialarentzat. Errealitate horren aurrean, etxebizitzaren krisia agenda soziopolitikoaren erdigunean kokatu nahi dugu, eta pertsona guztientzako etxebizitza duina izateko eskubidea aldarrikatzen jarraitu.

Horregatik, azaroaren 11n kalera irtengo gara. 1.500 euroko LGS propioa eskatzeko eta etxebizitzen espekulazioaren amaiera eskatzeko.

Erakundeek eta patronalak erantzukizunak dituzte.

Azken urteotan, ELAk Gasteizko Gobernua zein Iruñeko Gobernua, udalak eta aldundiak interpelatu ditu, bizi-baldintza duinak bermatzeko benetako neurriak eskatuz. Hala ere, salatzen dugu bultzatutako politikak oraindik ez direla nahikoak langile-klasearen beharrei erantzuteko.

Etxebizitza eskubidea da, ez negozioa.

Euskal gehiengo sindikalak, Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatuen Sarearekin eta Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistarekin batera, azaroaren 11rako greba orokorra deitu du, egoera horri erantzun kolektiboa emateko eta benetako eraldaketak eskatzeko.

1.500 euroko gutxiengo soldata propioa eta egiturazko neurriak aldarrikatzen ditugu higiezinen espekulazioarekin amaitzeko, besteak beste:

- Bizitzeko alternatibarik gabeko etxegabetzeak debekatu.
- Enpresek eta inbertsio-funtsek espekulaziorako etxebizitzak erostea debekatzea.
- Funts putreen esku dauden etxebizitzak desjabetzea, hala dagokionean, haien funtzio soziala bermatzea.
- Euskal langileen soldatak igotzea.
- Alokairu-prezioak jaistea.

Euskal Herrian azken urteetan etxebizitzaren aldeko mobilizazio oso jendetsuak izan dira. Mobilizazio horiek esparru propio baten alde egiten dira, hemen bizi eta lan egiten duten pertsona guztientzat. Irakurketa eta aldarrikapen propioekin, hemengo erakundeak interpelatuz.

Greba egunean mobilizazioak egongo dira goizean 4 hiriburuetan, eta baita Tuteran eta Eibarren ere. Arratsaldean, hiriburuetaz gain herri ugarietan mobilizatuko gara.

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA BERMATZEKO, ESPEKULAZIOARI EZ!



Etxebizitza: Bizitzaren eta merkatuaren arteko arrakala

Arrakala gero eta handiagoa da Aiaraldean dagoen etxebizitza premiaren eta merkatuak eskaintzen duenaren artean. Etxeak egon, badaude, baina merkatutik kanpo edo geroz eta prezio altuagoetan

Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Azken asteetan lehen planora egin du salto etxebizitzaren auziak, baita Aiaraldean ere. Horren isla dira tokiko erakunde publikoetatik esparru horretan abiatutako proiektuak: Okondo eta Artziniegako Udalek dirulaguntzak jaso berri dituzte alokairuzko etxebizitzak sustatzeko, Amurrion babes ofizialeko 60 etxebizitza amaitu ziren iaz eta Laudion beste 64 ari dira eraikitzen Goikoplazan. Arrankudiaga-Zollon, aldiz, urte amaieran entregatuko dituzte 12 udal etxebizitza kooperatiboen giltzak eta Orozkon herri kontsulta abiatu dute udalerriko diagnostikoa osatzeko.

Dena den, egitasmo horiek nekez bideratuko dute arazoaren tamaina. Datuak hor daude: eskualdeko 1.965 pertsona daude Etxebideko itxaron-zerrendetan, alokairuzko bizitoki baten bila gehienak. Baina beharra ez da zifra horretara mugatzen. Hasteko, Arakaldo, Arrankudiaga eta Okondoko eskatzaileen datuak ez dira publikoak, udalerri txikiegiak direlako. Horrez gain, jende askok ez dago itxaron-zerrenda horietan, baldintzak betetzen ez dituelako.

Era berean, estatistika horretatik kanpo geratzen dira baita ere eskualdean kale egoeran edo eraikin abandonatuetan bizi diren pertsona gehienak, edo arrazoi bategatik edo besteagatik Etxebiden alta ematera iritsi ez direnak. Beharraren dimentsioa, beraz, nabarmen handiagoa da.

Egon badaude

Baina etxeak egon, badaude; zehazki, 21.902 guztira eskualdean, Eustatek 2024an argitaratutako datuen arabera, 2010ean baino 1.839 gehiago. Etxebizitza horietatik 4.253 (%19,41) ez dira ohiko bizileku moduan erabiltzen urtearen zati gehienetan. Hau da, bigarren mailakoak dira (urtearen zati batean erabiltzen dira soilik), hutsik daude edo denboraldi laburretarako alokatzen dira.

Lehen bai, baina orain Eustatek jada ez du hiru kasu horien artean bereizten.Gauzak hala, zaila da erabat hutsik dauden etxeak zenbat diren zehaztea. Espainiako Estatistika Institutuak 2021ean eginiko azterketaren arabera, 1.880 etxe huts egongo lirateke orotara eskualdean, baina kontuan hartuta estatistika horrek ez dituela udalerri txikienen (Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo) datuak jasotzen eta kontsumo elektrikoa neurtuta ebazten duela etxe bat hutsik dagoen edo ez.

Modu batean edo bestean, zifra anabasa horrek balio dezake ondorio batzuk ateratzeko: eskualdean 42.803 pertsona bizi dira une honetan, etxebizitza bat dago ia bi pertsonako. Hori kontuan izanda, arazoa ez dirudi etxebizitza parkean dagonik, merkatuan baizik.

Nahikoa da higiezinen atarietara begiratu azkar bat ematea horretaz jabetzeko. Artikulu hau idazten ari garen unean, eskualdeko 133 etxebizitza daude salgai Idealista atari ospetsuan. Alokairuan, aldiz, hiru baino ez, eta 1.000 euro baino gehiagoko bataz besteko prezioarekin. Gelak, aldiz, bi baino ez dira alokatzen, 450 euro baino gehiagotan biak.

Arazoa, beraz, ez da alokairuaren prezioa soilik, baita merkatuan dagoen eskasi orokortua ere. Higiezinen agentzia gehienek itxaron zerrendak dituzte eta, beraz, izaruxoak bezain ezohiko eta iheskorrak bilakatu dira alokairuzko etxebizitzen iragarkiak.

Etxe hutsak merkaturatzea

Gauzak hala, bestelako neurri batzuk ere jarri dira abian azken urteetan tokiko erakundeetatik, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea sustatzeko, Ondasun Higiezinen gaineko Zergan %50ko errekargua ezartzea kasu. Laudion, adibidez, 2024an ezarri zuten neurri hori. Horretarako, egoiliar gisa inor erregistratuta ez duten etxeen zerrenda plazaratu zuen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, 660 orotara.

Hautsak harrotu zituen erabakiak. EAJk salatu zuen informazio horrek "jabeen pribatutasuna" urratzen zuela, hainbat datu esanguratsu jasotzen zituelako: hutsik dagoen etxearen atariaren helbidea, katastroko erregistroko zenbakiaren zati bat eta baita jabeen NAN edota CIF zenbakien lau hizki.

Dena dela, datu horiek balio dezakete etxe hutsen nolakotasunean apur bat sakontzeko, jabetza pilaketari erreparatuz adibidez. Zerrenda horretan agertzen ziren jabe gehienek (394) etxebizitza bat dute hutsik gehien jota. 103 jabe daude bi etxe huts dituztenak, 11 jabe daude hiru etxe hutsekin, hiru jabe lau etxe hutsekin eta bana zazpi eta zortzi etxe hutsekin.

Hori kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke Laudioko etxebizitza huts gehienak jabe askoren artean banatuta daudela, eta bankuek zein funts putreek ez dutela beste zonalde espekulatiboago batzuetan (hiriburuetan kasu) bezainbesteko presentziarik. Izan ere, zerrendan agertzen diren identifikazio zenbakiek gutxitan egiten dute bat Espainiako Estatuan jarduten duten banku eta funts putre ezagunenen CIF nagusiekin.

Gainera, 660 etxe hutsetatik 196k dute jabe bat baino gehiago. Horietako 43k lau edo gehiago dituzte, eta badaude muturreko kasu batzuk zeintzuetan hamar baino gehiago dauden. Horrenbeste jabe egotea ohikoa izaten da etxea herentzia batean sartuta dagoenean, eta baliteke etxea horregatik egotea hutsik: jabeak ez direlako ados jartzen eta, ondorioz, ez dutelako merkatura ateratzen.

Eskualdean 42.803 pertsona bizi dira une honetan, etxebizitza bat dago ia bi pertsonako. Hori kontuan izanda, arazoa ez dirudi etxebizitza parkean dagonik, merkatuan baizik.

Negozioa

Datuek iradokitzen dutenez, etxebizitzaren esparruan geroz eta arrakala handiagoa sortzen ari da merkatuaren eta eskualdeko biztanleek duten bizitoki premiaren artean. Eta geroz eta gehiago dira baita ere arrakala hori negozioa egiteko aukera gisa ikusten dutenak ere.

Azken hilabeteetan argitara atera da Rentalegi enpresaren jarduna, Xabier Eguia Basoak kudeatutakoa. Rent-to-rent deritzon teknika baliatzen du enpresari laudioarrak: pisuak alokatu egiten dizkie jabeei eta erreforma batzuk egiten ditu etxebizitza ahalik eta gela gehienetan banatzeko. Gela bakoitza modu berezituan azpi-alokatzen du ondoren eta, modu horretan, etxea osorik alokatuta lortuko lukeena baino nabarmen diru gehiago eskuratzen du. Bere hitzetan, 400 gela baino gehiago kudeatzen ditu modu horretan, eta 500 euro ingurutan alokatzen du bakoitza.

Dena den, Rentalegirena adibide bat baino ez da. Azken urteetan ugaritu egin dira mota horretako enpresak, baita eskualdean ere. Bitartekari funtzioa betetzen dute etxe hutsen jabeen eta etxe bila daudenen artean, lehenengoek zuzenean alokatzeari dioten beldur edo erreparoak eta bigarrenen premiak ustiatuta.

Korrontearen kontra

Merkatua horrelakoa dela esango luke baten batek. Baina Aiaraldean badaude korrontearen kontra dihardutenak ere. Amurrioko Ategin elkartea da horren adibide. Gainetik ikusita, antzeko jarduna egiten du elkarte horrek: bitartekari lanak egiten ditu jabeen eta alokairuzko etxeen bila daudenen artean. Baina bertako kideek badute funtsezko ezberdintasun bat: ez dutela ezer kobratzen trukean.

Hala azaldu zuten elkarteko kideek urte hasieran Aiaraldea Komunikabideari eskainitako elkarrizketan: “Jabeak oso mesfidatiak dira gaitasun ekonomikoak bermatzen ez dituen jendeari alokatzeari dagokionez, esaten dute adingabeek etxeak birrintzen dituztela... Gure helburua da bitartekaritza egitea jabeari bermatzeko gauzak ondo egingo direla, pisua ondo tratatua izango dela, sinatzen den kontratuari erantzungo zaiola... Horren guztiaren bermatzaile gisa jarduten dugu”. Elkarrizketa egin zen unean 60 pertsonarentzako bizitokia lortua zuten dagoeneko, 17 familia orotara.

Baina argi dute eurek nekez bideratu dezaketela arazoa. Euren hitzetan, “esku-hartze publikoa” behar da etxebizitzaren gaiari heltzeko, ezberdina orain arte egin denarekiko. Izan ere, uste dute orain arte “partxeak” jarri izan direla, “eta etxebizitzaren auzian partxeek ezer gutxirako balio dute”.

21.902

etxe daude eskualdean, ia bana bi pertsonako.

1.965

aiaraldear daude Etxebideren itxaron-zerrendan, alokairu bila gehienak.

4.253

etxebizitza ez dira ohiko bizileku moduan erabiltzen urtearen zati gehienetan, kopuru osoaren %19,41.

1.880

etxe daude gutxienez Aiaraldean erabat hutsik.

Espainiako Estatistika Institutuak 2021ean eginiko kalkuluaren arabera.



Herriz herri

Azalera podcasta

"Tailer eta udal ikastaroen lizitazioak **azarorako egon beharko luke printzipioz"**



Arkaitz San Jose Martinez
ARTZINIEGAKO ZINEGOTZIA

"Uste dugu hemendik gutxira elikagaien larrialdi batean topatuko garela, eta momentuz ez dugu horri aurre egiteko tresnarik"



Iñaki Urkixo Perez
EKINTAEKO ELKARTEA

Entzun gure podcastak www.aiaraldea.eus/nahieran atarian edo QR-a eskaneatu

Artziniega

Hormazan etxebizitza gehiago eraikitzeko aukera aztertzen ari da Udala Jaurlaritzarekin



Prozesu bakoitzak bere erritmoan eta bere mugarriekin egingo du aurrera, Udalak azaldu duenez. **Aiaraldea.eus**

Testua
Garazi Cuadra Alvarez

Oraina doituz, gure etorkizuna proiektatuz lelopean, Artziniegako Udalak herritarren parte-hartzea sustatzeko bi prozesu jarri ditu abian. Batetik, arau subsidiarioak berrikusteko prozesua abiatu du, landa-lurraren erabilerak eta eraikuntza-baldintzak eguneratzeko. Bestetik, Hormazako Plan Berezia lantzen ari da, eremu horretan etxebizitza gehiago eraikitzeko aukera aztertzeko eta udalerriko etxebizitza-eskaintza zabaltzeko.

Landa-lurraren araudia

Lehenengo prozesuaren helburua da landa-lurrean zer jardueratxebizitza eta eraikuntza baimendu daitezkeen zehaztea eta horretarako bete beharreko baldintzak eguneratzea. Horretarako, hiru ardatzen inguruan jasoko dituzte herritarren ekarpenak.

Lehenik, landa-lurrean jardueratxebizitzak eta bestelako eraikuntzak baimentzeko irizpideak berrikusiko dituzte. Azkenik, landa-nukleoak aztertuko ditutze, zehazteko zer eremu hartzen diren halakotzat eta zer araudi aplikatzen zaien.

Prozesu horren barruan, informazio-saioa egingo dute azaroaren 12an, 18:00etatik 19:00etara, Artziniegako Kultur Etxean. Saioa irekia izango da, eta balioko du aldaketek zer ekarriko duten azaltzeko eta herritarren zalantzak argitzeko. Horrez gain, aurrez aurreko lansaioa egingo dute azaroaren 18an, 18:00etatik 20:00etara. Bertan, hiru gaien inguruko ekarpenak bilduko dituzte talde-lanaren bidez. Plazak mugatuak direnez, aldez aurretik eman beharko da izena.

Saio presentzialera joaterik ez dutenek ere izango dute parte hartzeko aukera, Udalak prestatu duen inkesta digitalaren bidez. Hamar minutu inguruko galdetegiaren bidez, herritarrek beren iritzia eman ahal izango dute.

Hormazako Plan Berezia

Bigarren parte-hartze prozesua Hormazako Plan Bereziaren ingurukoa da. Udala eta Eusko Jaurlaritza akordio bat aztertzen ari dira, eremu horretan hasieran aurreikusitakoak baino etxebizitza gehiago eraikitzeko aukera emateko eta, horrela, udalerriko etxebizitza-eskaintza handitzeko. Proposamenaren arabera, etxebizitza horiek garatu ahal izango lirateke eraikuntzak Udalari kosturik eragin gabe. Udalak lurzorua jarriko luke, eta, aztertzen ari diren akordioaren arabera, eraikinaren eta lursailaren kudeaketa udal-kudeaketatik kanpo geratuko litzateke.

Udalak herritarren ekarpenak jaso nahi ditu, Hormazako eremuaren antolamendua hobetzeko eta bertan gara daitekeen etxebizitza kopurua handitzeko aukerak aztertzeko. Plan Bereziak, gainera, lursailaren antolamendua, sarbideak, kanpoko espazioak eta eraikin berriek ingurunearekin izango duten harremana zehaztu beharko ditu.

Prozesu horri buruzko informazio-saioa azaroaren 4an egingo dute, 18:00etatik 19:00etara, Artziniegako Kultur Etxean. Saio irekian, proposamena eta Eusko Jaurlaritzarekin aztertzen ari diren akordioa azalduko dituzte, eta herritarren zalantzak argituko dituzte. Era berean, herritar guztiek izango dute inkesta digitala betetzeko aukera, Hormazako eremuaren etorkizunari buruzko iritzia eman dezaten.

Bi prozesu horien bidez, Artziniegako Udalak herritarren parte-hartzea sustatu nahi du udalerriko hirigintza-antolamenduari eta etxebizitza-politikari buruzko erabakietan.

Artziniega

Enartzi komunitate energetikoa abiatu dute Artziniegan



Enartzi egitasmoak sortutako irudia. **Enartzi**

Testua
Garazi Cuadra Alvarez

Herritar talde batek Enartzi komunitate energetikoa sortu du Artziniegan. Momentuz 40 kide inguru dira eta bidelagun gehiagori ere lekua egingo diete, interesdunik egonez gero. Horretarako modu zuzenena udaletxera deitzea da eta eurekin harremanetan jartzea.

Une hauetan eztabaidatzen ari dira zein eredu hautatuko duten ekoiztuko duten energia kudeatzeko, hainbat kooperatiba mota baitaude: batzuk komunitate energetikoen sarearen barruan (Soxon egin duten moduan), beste batzuk euren kabuz (Urduñan kasu) edota Goienerren laguntzarekin, besteak beste.

Energia fotovoltaikoa

Lehen asmoa da azpiegitura fotovoltaikoa instalatzea eta horretarako hizketan ari dira Udalarekin, jakiteko eraikin baten teilatua lagatu ahal dieten horretarako. Jadanik kalkulu eta aurreikuspen batzuk egin dituzte beharrezko inbertsioari eta kontsumoari buruz.

Izan ere, komunitatea egituratzeko fakturen tailerrak egin dituzte eta hainbat herritarri euren kontsumoari buruzko azterketa ere eskaini diete, jakiteko zein ordutan duten kontsumo handiena, ekoizpen fotovoltaikoarekin alderatzeko.

Eredua aldatzea

Edonola ere, Enartziko kideek aipatu dute egitasmoaren helburua ez dela aurreztea, gizarte eredu berria bultzatzea baizik. Horretarako komunitatearen kontzeptua bera jarri nahi dute erdigunean eta ekimen kolektiboak sortu; izan karga puntuak ezartzeko, tresnak elkarrekin erosteko edo auto elektrikoak modu kolektiboan eskuratu eta baliatzeko.

Aiara

Aiarako Udalak % 8ko igoera onartu du zabor bilketaren tasan



Aiaraldeko Kuadrillak egiten du zerbitzuaren kudeaketa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Ez-ohiko udalbatza izan zuten Aiaran iragan azaroaren 2an eta zabor bilketaren tasaren eguneraketa onartu zuten. % 8ko igoera ezarri dute eta hobariak % 10eko mantenduko dituzte. Edonola ere, gogoratu beharra dago onura horiek jasotzeko aurten eman behar zela izena, ziurtatzeko etxeko konpostajean, konpostaje komunitarioan edo, jatetxeen kasuan, etxez-etxeko zerbitzuan parte hartzen zela.


Konpostajearen bitartez hondakin gutxiago sortzea ekiditen da eta hori saritu nahi du tokiko erakundeak.

Tasa berriak aurrera egin zuen Pruden Otegi alkatearen kalitatezko bozari esker. Izan ere, EAJ abstenitu zen eta Aiara Batuzek kontra egin zuen. Berdinketaren ondorioz, alkatearen boza gailendu zen.

Aipatu beharra dago eguneraketaren arrazoia dela zerbitzu publiko hori autoaskia izan behar dela, Europar Batasunak zehaztutako irizpideen arabera. Horrek esan nahi du tasaren bilketari lotutako diruaz finantzatu behar dela eta igoerak egon direla eskualde osoan. Aiaran, esaterako, iaz %1 1koa izan zen garestitzea eta kasu deigarriena Amurriokoa izan da, aurten % 70 baino gehiago handitu baita.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
80 urte zurekin

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK
Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea LAUDIO (Araba) 946 723 100

INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO
ITURGINTZA · BEROKUNTZA
GASA · AIRE GIROTUA · AEROTERMIA
Tienda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55
José Madinabeitia, 1 Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

Herriz herri

Aiaraldea

AP-68 Dohainik plataformak autopista ez ordaintzeko deia egingo du bidesariak mantentzen badira

Aiaraldeko mobilizazioak gogortuko dituela iragarri du taldeak, eta 9.000 sinadura inguru bildu ditu bidesariak eta ordainketa-arkuak kentzeko eskatzeko.

Testua
Garazi Cuadra Alvarez



AP-68aren egungo kontzesioa azaroaren 10ean amaituko da. **Aiaraldea.eus**

AP-68 Dohainik plataformak Aiaraldeako mobilizazioak gogortuko dituela iragarri du, eta gidariei autopista ez ordaintzeko deia egingo die azaroaren 10ean egungo kontzesioa amaitu ondoren bidesariak mantentzen badira. Taldeak salatu du ordainketei eusteak lurralde eta gizarte diskriminazioa eragiten duela, bereziki egunero lanera joateko Laudio, Bilbo eta Gasteiz artean mugitu behar duten herritarren artean.

Kepa Alaña plataformako bozeramaileak Arabako Batzar Nagusian defendatu du bidesariak kentzea, eta erakundeei eskatu die langileen eta eskualdearen interesen alde egiteko: "Aiaraldean bizitzeak ezin du gainkostu bat izatea suposatu", adierazi du.

Alañaren esanetan, eskualdean bizitzeak ezin du ekarri beste lurralde batzuetako herritarrek ez dituzten gastuei aurre egin behar izatea, bereziki, lanera egunero joan-etorriak egin behar dituztenentzat.

Plataformako bozeramaileak gogorarazi du AP-68aren kontzesioa 30 urtekoa zela eta 2011n amaitu behar zuela, baina José María Aznarren gobernuak beste 15 urtez luzatu zuen, alegia, 2026ra arte.

2020-2021 inguruan autobidearen titulartasuna foru-erakundeen esku geratu zen: "Arabako eta Bizkaiko ordezkariek hobari handiak ezarriko zituztela iragarri zuten, baina neurri horiek ez dira iritsi", salatu du plataformako bozeramaileak.

Alañaren arabera, erakundeek AP-68a kosturik gabe jasoko dute, eta, hala ere, erabiltzaileek ordaintzen jarraitu beharko dute. Horregatik, kontraesankortzat jo du Aragoiko, Nafarroako eta Errioxako gobernuek autobidea doakoa izateko hartutako erabakiekin alderatuta Araban eta Bizkaian bidesariak mantentzea.

"Hamabost urtez zigortuak izan gara, eta zigortzen jarraitu nahi gaituzue", salatu du bozeramaileak, ordainketei eusteko erabakiaren aurrean.

Halaber, Araban ehun kilometrotik gorako sei autobide motako errepideak zalantzan jarri dituzte, bertan bidesaririk ez dagoela nabarmenduz: "Zer gertatzen da, horiek ez dutela kutsatzen edo errepide horiek ez direla urratzen?", galdetu du Kepa Alañak.

Plataformak defendatzen du autobideak erabiltzea seguruagoa dela eta, baldintza egokietan, erregai-kontsumoa eta kutsadura murrizten lagun dezakeela. Era berean, bidesariak kentzeak langileen eguneroko bizitza erraztu, familia eta lana uztartzea hobetu eta Aiaraldeako enpresen lehiakortasuna indartuko dituela uste dute.

> "Aiaraldean bizitzeak ezin du **gainkostu bat izatea suposatu**"

Taldearen iritziz, herritarrek ekarpena egiten diote dagoeneko kutxa publikoari erregaien zergen, BEZaren eta ibilgailuei lotutako gainerako tributuen bidez.

Bide beretik, azpiegitura hamarkadatan ordaindutako bidesariei esker amortizatuta dagoela defendatzen dute, eta, ondorioz, bertako mantentze-lanak finantzatzeko diru publikoaren erabilera berriro aztertu beharko litzatekeela uste dute.

Alderdi eta erakundeei deia

AP-68 Dohainik plataformak EAJri, PSE-EEri eta EH Bilduri eskatu die bidesariak kentzeko neurriak har ditzatela, eta kritikatu egin du hiru alderdi horiek ordainketei eusteko adostutako jarrera.

Bide batez, urriaren 19an Baranbion herriatarrek trafikoa eten zuten Arabako Foru Aldundiak ezarritako ordainsariekin desadostasuna erakusteko eta doakotasuna exijitzeko.

Taldeak dagoeneko 9.000 sinadura inguru bildu ditu bere eskaeraren alde, eta herritarrei dei egin die ekimenarekin bat egin eta eskaera zabaltzeko.

Plataformaren eskaerak, beraz, kontzesioa amaitzean AP-68ko bidesariak behin betiko kentzeko aukera ematea eskatzen du, eta ez erabiltzaileei ordainketa-sistemari eusteko.

Horretarako, erakundeei eskatu die langileen, segurtasunaren eta lurralde-kohesioaren aldeko erabakiak har ditzatela. Plataformak adierazi du Arabako Mercedes, Michelin, Indesa, Vidrala eta Tubacex enpresetako langileen batzordeen babesa duela, baita Aiaraldeko sindikatu eta txirrindulari-talde batzuena ere.

Herriz herri

Aiaraldea

Tubacexek 5,5 milioi euroko galerak izan ditu urteko hirugarren hiruhilekoan



Tubacexeko lantegia Amurrion. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Tubacex enpresak jakinarazi du 5,5 milioi euro galdu dituela aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Emaitza ez da batere ona, are gehiago alderatzen bada iazkoarekin, zeinean tarte berean 16,7 milioi euroko etekinak izan zituen.

Edonola ere, konpainiak lasaitasuna transmititu nahi izan du eta azaldu du Ekialde Hurbilean gertatzen ari diren gerrek eta Ormuzeko egoera direla, neurri handi batean, egoeraren arrazoia.

Gauzak horrela, enpresak 384,1 milioi euroko kapital zirkulatzailea dauka eta horietatik 145 milioi euro Adnoc Abu Dabiko enpresararekin egindako kontratuari lotuta daude. Gogoratu beharra dago bi enpresen arteko harremana Joint venture deituriko hitzarmena dela eta, multinazionalak azpimarratu duenez, adostutako diru sarrerak beteko dira.

Izan ere, Iran, Israel eta Estatu Batuen arteko gerrak eragina izan du bere bazkidean eta garraioak eragindako gainkostuak eta horniketa etenaldiak ekarri ditu horrek, Ormuzeko itxieragatik. Edonola ere, epe laburrean 65 milioi euroko diru sarrera espero du Tubacexek eta gaineratu du 1.162,4 milioi euroko eskari zorroa dutela oraindik.

Industria nuklearra

Bestalde, Tubacexek ez ditu soilik albiste txarrak zabaldu bere inbertsoreentzat. Izan ere, oharra plazaratu zuen pasa den astean jakinarazteko EDF enpresa frantsesarekin elkarlanean aritu eta gero, hodiak salduko dizkiola eraikiko dituzten hiru zentral nuklear berrientzat.



Laudio

Jaurlaritzak Guardianen erosketarako aurreikusitako inbertsioa enpresen arteko akordioaren menpe dago

Testua
Aitor Aspuru Saez

Eusko Jaurlaritzak proposatutako 2027ko aurrekontuen zirriborroan 16,9 milioi euroko diru kopuru erreserbatuta dago Guardianen instalazioak erosteko eta egokitzapena egikaritzeko, Aiaraldeko Berehalako Esku-hartzearen Planaren barruan .

177.910 metro karratuko lantegien erosketa suposatuko lukeen operazioa, dena den, ez dago erakunde publikoen esku, gaur Ramiro Gonzalez Arabako Ahaldun Nagusiak ziurtatu duenez.

Gonzalezek azaldu du instituzioek ezin dutela argitu zein konpromiso hartu dituzten, diskrezioagatik, baina gaineratu du Aldundiak bete dituela jadanik bere gain hartutako ardurak.

Gauzak horrela, azpiegituren esku aldaketa enpresa pribatuen esku dago, negoziazioetan baitaude oraindik, eta horrek erabakiko du operazioa egikarituko den edo ez.

Erakunde publikoek duela urte eta erdi adierazi zuten egitasmoan inplikatzeko prestutasuna. Apirilean, aldiz, argitara atera zen VSF eta Gaviota konpainiek berrireki nahi zituztela Guardian eta Glavista, Javier Garcia Marquez enpresariarekin batera, baina akordioak zintzilik jarraitzen du une honetan.



Babestutako espazioa

azaroa FAKTORIAN



1, domeka
18:00 · Faktorian
ARTE HARTZE ZIKLOA/
IBANTUTA ZINE IKUSKIZUNA
IKASLE LANGABETUAK 8€
BAZKIDEAK 10€
EZ BAZKIDEAK 12€



4, eguaztena
18:00 · Faktorian
FAMILIEN KABIA/
GURE HAURREK EUSKARAZ BIZITZEA NAHI DUGU
DOAKOA



6, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
LUDOTEKA/
ESKULANA: KEXKAMUXELAK
DOAKOA



7, zapatua
11:00 · Faktorian
ARROPA PLAZA IREKIERA EGUNA
DOAKOA



7, zapatua
12:30 · Faktorian
IRAKURLE FAKTORIA/
LOTURAK LIBURU AURKEZPENA
DOAKOA

ARROPA PLAZA
Azaroaren 7tik
14ra, ohiko ordutegian!

Azaroak 11 Faktoria itxita!
GREBA OROKORRA
etxebizitza eskubidea
bermatzeko, espekulaziorik ez!




12, eguena
17:30-20:30 · Faktorian
AGROEKOFEMINISMO
ZIKLOA/ BORBOR ELKARTEA/
LOKALA GLOBALA DA, SUKALDEAK BATZEN DUENA
Izen ematea · 688 62 59 00
DOAKOA




14, zapatua
10:30 · Faktorian
KOKORIKO/
JOSTAILU TRUKE AZOKA
DOAKOA



19, eguena
18:30 · Faktorian
IRAKURLE FAKTORIA/
JON ITURREGIREN LIBURU AURKEZPENA +
LIBURUTEGI KOMUNITARIOAREN AURKEZPENA
DOAKOA



20, barikua
17:00-19:00 · Faktorian
LUDOTEKA/
JOSTEKO TAILERRA, OSATU ZURE PANPINA
DOAKOA



21, zapatua
18:00 · Faktorian
KULTUR FAKTORIA/
ARTE EMAN FESTA
SAIO IREKIAK
ITXASO GARDOKI · NEREA LIZARRALDE · ANDREA BERBOIS · JON GARRIDO
+ IF MATXIKOTE ERAKUSKETA
+ HOR HOR KONTZERTUA
IKASLE LANGABETUAK
8€ BAZKIDEAK 10€
EZ BAZKIDEAK 12€



22, domeka
11:00 · Faktorian
KOKORIKO/
0-3 URTEKO HAURRENTZAKO JOLAS LIBRERAKO ESPAZIOA
BAZKIDEEK 5€
EZ-BAZKIDEEK 7€



22, domeka
12:00-14:00 · Faktorian
BORBOR ELKARTEA/
FEMINISMOA AIARALDEAN BOR-BOR TOPAKETA
DOAKOA



27, barikua
18:00 · Faktorian
BORBOR ELKARTEA/
MUNDUKO SENDABELAR JANGARRIAK AIARALDEAN
TAILERRA +
PROIEKTU AURKEZPENA
DOAKOA



28, zapatua
Egun osoz · Laudion
AIEKEK ANTOLATUTA/
EUSKARAREN EGUN BATERATUA
informazio gehiago: aiaraldekoeuskalgintza.eus

Azaroak 25 Faktoria itxita!
BATU ESKUALDEKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNEKO DEIALDIETARA!

Herriz herri

Laudio

Laudioko Granja kiroldegian plaka fotovoltaikoak instalatuko dituzte

Testua
Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak irailean abiatu zuen lizitazioa kiroldegian autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzeko. Kontratua esleitzeko bidean dago jadanik eta helburua da aukontsumorako 99 KW sortzeko gaitasuna duen azpiegitura jartzea.

Berez, enpresek 134.700,28 euro gehienez kobratuko dute lanagatik. Lehen hiru hiletan 110.500,28 euro teilatuan instalazioa bera egiteko eta hurrengo lau urteetan 6.050 euro urtero mantenua ziurtatzeko.

99 KW ekoizteko gaitasuna izango du instalatu nahi duten sistemak

Egitasmoaren helburua anitza da: autokontsumoa sustatzea, CO_2 isurketak murriztea kiroldegiaren jardueran edota eraginkortasun energetikoa handitzea, besteak beste.



Orozko

Euskal Herriko irrintzilarien topagune bilakatuko da Orozko datorren azaroaren 14an

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Irrintzi Eguna ospatuko dute datorren azaroaren 14an Orozkon. Iaiaiai Irrintzi Taldeak hauspotu du egitasmoa, eta Euskal Herrian ospatzen den gisa lehendabizikoa izango da. Tokiko irrintzi taldeak, "irrintzia publiko zabalari gerturatzeko nahiak" bultzatuta antolatu du eguna. Horretarako egitarau zabal baten aterkipean toki desberdinetatik etorritako jendea elkartzea dute xede.

"Iaiaiai Irrintzi Taldeak tradizioa eta garaikidetasunaren arteko oreka dugu lan ardatz, eta hori hedatu nahi dugu Irrintzi Egunarekin", azaldu dio Nerea Iglesias taldekideak Aiaraldea Komunikabideari. Jendea Orozkora bertaratzeko egun osoko egitaraua prestatzen ari dira Iaiaiai Irrintzi Taldeko kideak. "Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:30etara luzatuko da egitaraua" aurreratu du Iglesiasek.

Eguneko ekintzarik bereziena larunbat eguerdian egingo dutela jakinarazi dute Iaiaiai taldeko kideek: Irrintzi Olatua. Irrintzi kolektiboa izango da Irrintzi Olatua; "Orozkora bertaratutako toki desberdinetako irrintzilariek irrintzi bateratu bat egitea da asmoa" Iglesiasen hitzetan. Zehaztu dutenez 40 lagun baino gehiago elkartu nahi dituzte ekimenean modu aktiboan parte hartzeko. "Parte hartu nahi duen orok Iaiaiai Irrintzi Taldearekin harremanetan jartzea besterik ez du", jakinarazi du Iglesiasek. Gainera, Euskal Herriko irrintzilariak ez ezik, beste kulturetako oihuak ere ongi etorriak izango dira ekimenean.

Euskal Herri mailan erreferentziazko eguna antolatzea dute helburu, eta urtez urte hitzordua errepikatzea: "Bokazioa da urtez urte antolatzea eta Orozko Euskal Herriko irrintziaren topagune bilakatzea. Oraindik ere espresio artistiko askotan du tokia irrintziak, eta hori indartzen jarraitu nahi dugu".

Kirikiñausien inguruan batu dira dozenaka herritar, Gaztaina Egunaren XXV. edizioan



Gaztainak antzina izandako garrantzia aldarrikatu zuten. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Dozenaka herritar elkartu ziren iragan urriaren 25ean Itxina azpiko basoetan gordetako kirikino-hesien bueltan. Supelaur Elkartea antolatuta, Gaztaina Egunaren XXV. edizioa ospatu zuten, eguraldia lagun. Gaztainak antzina izandako garrantzia aldarrikatzea du helburu ospakizunak.

Elkarrizketa



“LOROAREN 217 ALE ZENBATU NITUEN OTSATIN, INGURUKO POPULAZIORIK HANDIENA”

ARTZINIEGAKO OTSATI MENDIAN AURKITZEN DEN LANDARE ESPEZIE BEREZIA IKERTU DU **NAHIA CARRETERO ROQUE** (Artziniega, 2002) BIOLOGOAK: LOROA. FOSIL BIZIA DA, DUELA MILIOIKA URTE ESKUALDEAN ZEGOEN EKOSISTEMAREN LEKUKOA.



Testua eta argazkia **Aimar Gutierrez Bidarte**

Zerk bultzatu zaitu Otsati mendiko landaredia ikertzera?

Biologoa naiz eta Biodibertsitate, Funtzionamendu eta Ekosistemen Kudeaketa Masterra egin nuen. Txikitatik izan dut botanikarekiko gertutasuna, amama sendabelarrekin aritzen zen eta hurbil sentitu dut beti mundu hori. Biologia ikasi nuen eta geroztik landaredian eta botanikan zentratzen hasi nintzen.

Muskerrak Ingurumen elkarteko Oier Vrizuelaren bidez izan nuen Artziniegan 2016an aurkitutako landare espezie bitxi baten berri: *Prunus lusitanica* subsp. *lusitanica*. Loro ezizenaz ezagutzen da gaztelaniaz, Portugalgo erramua euskaraz. Gradu amaierako lana egin behar nuen garai hartan eta nire irakasle bati aurkeztu nion gaia. Nire herrian agertutako landare bat izanik, sakonean ezagutu nahi nuen zein egoeratan zegoen.

Zer du berezia Otsati mendian aurkitutako espezie horrek?

Espezie erreliktuala da *P. lusitanica*, fosil bizidun bat. Paleogenoan, duela 40 milioi urte inguru gure inguruko klima hezea eta beroa zen, subtropikala. Garaiko landaredia klima horretara egokituta zegoen. Duela 3 milioi urte inguru, Kuaternarioan, glaziazio eta izozte handien garaian, landarediak mugitu behar izan zuen. Ondorioz, klima heze eta epeletara ohitua zegoen landaredia hori oso isolatuta geratu zen, txoko bakanetan. Horiei deritze izaera erreliktualeko espezieak.

Aipatu duzunez, 2016ra arte ez zegoen Artziniegan identifikatua.

Urte horretan baso-bideak zabaldu zituzten Otsati mendian, eta orduan deskubritu zuten Loroa. Burgoseko Mena Haraneko basozainak topatu zituen. Ordura arte Kanpezun zegoen identifikatuta Euskal Autonomia Erkidegoko *P. lusitanica* populaziorik handiena, 130 alerekin. Nik gradu amaierako lanerako egin nuen ikerketan 217 ale zenbatu nituen Otsatin.

Zer ikertu duzu zuk Otsati mendiko basoetan?

Otsati mendiko dibertsitatea eta basoaren egituraketa ikertu nuen, bai eta *P. lusitanicaren* erregenerazioa aztertu ere. Duela hamarkada asko Otsati mendia ikaztegi bezala erabiltzen zen. Bertako ustiapena bertan behera geratu ostean landarediak bere tokia hartu du, eta gaur esan dezakegu baso misto heterogeneoa dela bertan aurkitzen dena. Eskakizun ekologikoko landareek egiten dute bat bertan: termofiloak, higrofiloak... Bioaniztasunari dagokionez trantsizio eremu batean dago Aiaraldea, eta, ondorioz, klima atlantikoko eta klima mediterraneoko espezieak nahastuta agertzen dira: Loroa, erkametza, *Smilax aspera* edo arkasatsa, ezkia... Landaredian erreparatzeak paisaiaren konfigurazioaren berri ematen digu. Baso bat ez da soilik baso bat, baizik eta baso hori integratzen duen oro.

Ikaztegia izateari utzi zionetik Otsatiko erregenerazioa naturala ari da izaten, eta baso masa heterogeneoa ari da garatzen bertan. Horrek baditu bestelako eragin positiboak; aspaldian hemen ikusten ez ziren hegazti espezieak ari dira agertzen Otsatin, okil beltza adibidez.

> “Baso bat ez da soilik baso bat, baizik eta **baso hori integratzen duen oro**”

Loroaren erregenerazioa aztertu duzu ere.


Landare espezifikotasunaren aldetik konprobatu nuen loro-basoa erkameztia baino txiroagoa zela espezie kantitatean, esanguratsua zen emaitza gainera. Loro populazioaren dinamika aztertu nuen ere, eta ale gazteak urriak zirela ikusi nuen. Ugalketa asexuala edo begetatiboa nagusi zela konprobatu nuen ere. Landareen erregenerazioa sexuala, hazien bidez, edo asexuala izan daiteke, landarearen zati batetik abiatuta. Nagusiki erregenerazio asexualak landareen “klonak” sortzen ditu, ez dago birkonbinazio genetikorik. Bi emaitza horiek populazioaren berritzea mugatua egon daitekeela iradokitzen dute, eta, ondorioz, epe luzera haren biziraupena arriskuan egon liteke. Gainera, dibertsitate genetikoa mugatua izateko arriskua dago, baina hori baieztatzeko azterketa genetikoak beharko lirateke.

Zer egoeratan dago espeziea?

Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren zerrenda gorrian agertzen da *P. lusitanica*, egoera kalteberan dauden espezien artean. Espezie Mehatxatuen EAEko katalogoak ere jasotzen du, galtzeko arriskuan dauden espezien artean.

Elkarrizketa

Prunus lusitanica: loroa edo Portugalgo erramua





Hosto iraunkorrak dituen zuhaixka edo zuhaitz txikia da, 4-8 metrokoa.



Landarearen erregenerazioa, ordea, asexuala da nagusiki, eta horrek eragina du espeziaren dibertsitate genetikoan.




Loreak zuriak dira eta lukuak osatuz ateratzen dira.


Adar gazteak eta hosto-txortenak gorri ilunak dira; hosto-azpiek ez dute guruinik oinaldean.

Maiatza eta ekainean loratzen da, eta fruituak udazkenaren lehen erdian heltzen dira.

*Prunus lusitanica*ren hedapen eremua



Denbora banaketa



Otsati mendiko basoen osaera floristikoa



Smilax aspera | *Phyllirea latifolia* | *Quercus faginea* | *Prunus lusitanica* | *Hypericum androsaenum* | *Laurus nobilis* | *Daphne laureola* | *Arbutus unedo* | *Clematis vitalba*

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko flora baskular mehatxatua - Eusko Jaurlaritza
Otsati mendiko *Prunus lusitanica* baso erliktikoen dibertsitatea, egitura eta erregenerazioa - Nahia Carretero Roque (EHU)

Iritzia



Komunitatea garai likidoetan

XABI ZALBIDE

“Gaur egun beste modernitate-olatu batek harrapatu gaitu: globalizazio eta globalismo bortitzarenak, kapitalismo berantiar teknologikoarenak...”

Aspaldi irakurri nion Aketza Merino Zulueta historialariari, euskarak XVI. eta XVIII. mende bitartean Aiaraldeko leku batzuetan nolatan iraun zuen bizirik azaltzeko hipotesiak formulatzen zituen artikulu batean, bere ustez gakoa izan zela hizkuntzak giza-komunitatearen barruan balio garrantzitsu bat zuela eta, ondorioz, lehenetsia zela lehen sozializazio-prozesua gauzatzeko. Hau da, berton gaztelaniak oso aspalditik presentzia izan arren eta gizon gehienek erdara ikasi arren (eta are herri eta jende erdaldun elebakarrak egon arren), euskarak bizirik iraun zuen, jauntxo zein jende xehearen artean, noiz-eta dena “kontra” zuenean. Lortu zuen hortaz hiztun-komunitate horrek existitzea, oreka bat izatea. Lortu zuen harik eta modernitatearen olatuak harresi hori zulatu eta aurretik eraman zuen arte. Beraz, hipotesi horren arabera komunitatearen existentzia eta trinkotasuna izango litzateke (eta bada, nire ustez) hizkuntza baten biziraupenaren hil ala biziko faktorea.

Gaur egun beste modernitate-olatu batek harrapatu gaitu: globalizazio eta globalismo bortitzarenak, kapitalismo berantiar teknologikoarenak, indibidualismoarenak, kontsumismoarenak, kolapso demografikoarenak. Lehen ere harrapatu gaituzte batzuek, baina hau etorri zaigu (gainera jausten ari zaigu, hobe esanda) hain justu Euskal Herrian komunitate linguistikoa mantentzeko, sendatzeko edo –gure kasuan– birsortzeko lanetan ari ginela. Eragina ikaragarria izaten ari da nazio eta hizkuntza minorizatuetan, eta nago gu ia ohartu ere ez garela egin, munduko modernoenak izateko ahaleginetan itsumustuka gabiltzala.

“Nahi dugu munduko hiritar izan, baina euskaraz. Eta hori ez da posible”. Hau duela ez hain aspaldi irakurri dut, duela pare bat aste besterik ez, eta puntuan jotzen zuela begitandu zitzaidan; iruditu zitzaidan ondo irudikatzen duela bizi dugun kontraesana. Izan ere, sarritan ematen du euskara salbatu nahi dugula hizkuntza batek ezinbesteko duen ekosistema salbatu edo sortu beharrik gabe, modernitate likidoaren paradigma gehienei men eginez, nortasun sendo bat duen komunitate transbertsalik gabe. Hori ere ez da posible, baina bada posible, ostera, egoera zailetan kidetasun-senari heldu eta partida jokatzea.



Doluaren zein haserrearen defentsan

BESAIDE ASTOBIZA

Aspaldi hasi nintzen iritzi-artikulu hau idazten, erdipurdika eta lasai, nahastuta baina esanahi bila. Gizartetik eta gizartera begira, ea dolu-momentu batean geunden galdetzen nion nire buruari sarritan. Baina dolua eta mobilizatzeko beharra nola bizi zitezkeen elkarrekin, norbanakoaren barnean zein gizartean?

Duela ez hain gutxi, Sara Torres idazlearekin egindako idazketa-ikastaro batean, dolu-garaietan gorputzek egote hutserako duten beharraz aritu ginen. Haizea Urkixok aspaldi Bazter Itxian esandakoa ere datorkit burura: garai ilunetan banalitatera jotzeko beharra bazuela batzuetan.

Haserre eta borroka-garaietan bizi gara. Barrurantz begiratzeko beharrak eta banalitatera jotzeko nahiak elkarrizketan dihardute mobilizazioarekin. Horren adibide dira egoera sozial, ekonomiko eta laboralak salatzeko elkarlanean aurrera ateratako mugimenduak.

Nire buruari galdetzen diot zer behar dugun barrurantz egoteak eta mobilizatzeak elkarrekin bizi ahal izateko. Elkarzaintzara eramaten nau horrek. Babesa, segurtasuna eta zaintza behar ditugu tristura eta apatia besarkatzeko, baina baita antolatzeko eta aldaketa-grinarekin bat egiteko ere. Bi emozio «kontrajarri» horien deserosotasunari eusteko eta entzun ahal izateko. Konektatuta egoteko.

Baliteke doluak denbora eskatzea, eta mobilizazioak, aldiz, berehalakotasuna. Doluak isiltasuna eta egote hutsa behar ditu; borrokak, kalea eta presentzia kolektiboa. Baina zer gertatzen da bi behar horiek aldi berean agertzen direnean?

Mobilizatzeaz hitz egitean, ekiteko gaitasuna azpimarratzen dugu: kalera ateratzea, antolatzea, salatzea. Baina zer gertatzen da nekatuta dagoen gorputzarekin? Negar egin nahi duenarekin? Ezer egiteko indarrik ez duenarekin?

Banalitatea agian ez da gertatzen denari bizkarra ematea, baizik eta hartzen duen espazioa pixka bat askatzea. Arnasberritzea. Gosaltzea, lagunekin barre egitea, paseo bat ematea. Eguneroko gauza txiki horiek beharrezkoak izan daitezke aldarrikapenean egoteko eta ondokoak zaintzeko.

Zer egiten dugu elkar eusteko? Eta zer gertatzen da batzuek hitz egin nahi dutenean eta beste batzuek ezin dutenean?

Zer gertatzen da, hainbeste gauza mugitu nahi ditugun honetan, batzuetan mugitu ezinik geratzen bagara? Agian, garai ilunetan, ez da kontua borroka ala banalitatea aukeratzea, baizik eta biak batera nola bizi pentsatzea.

“Zer egiten dugu elkar eusteko? Eta zer gertatzen da batzuek hitz egin nahi dutenean eta beste batzuek ezin dutenean?”



Urrutiko intxaurren bila, etxekoak ahaztu

ANE ARANDIA

"Guk ere badugu gure tradizioa, gure mitoak, baladak, alegiak, kopla zaharrak... **Nik hor aurkitu ditut bitxi gehien"**

Urriaren 8an eman zuten 2026ko Literaturako Nobel Sariaren berri: Anne Carson idazle kanadiarrak eskuratu zuen garaikurra. Ez naiz ni Nobel sarien jarraitzailea; tarteka baino ez diet erreparatzen, ika-mikaren bat pizten denean, iazko Bakearen Nobel Saria bezalakoetan bakarrik. Aurten, ordea, mugikorrean agertu zait idazleak berria jaso zueneko bideoa. Carson etxeko sukaldean zegoen, eta albisteak ustekabean harrapatu zuen. Nobelaz galdetuta, harriduraz esan zuen I think they're all crazy... Well, you know, it's crazy.

Anne Carson ezaguna da, besteak beste, tradizio klasikoa eta gaur egungo kezkak uztartzen dituen literatura sortzeagatik. Baliabide aski ezaguna da, garai desberdinetako eta askotariko idazleek erabili izan dutena. Ildo horretan, zerbait idazlek konta daitezkeen istorio motak sailkatu izan dituzte, gizakiaren kezka nagusiak, funtsean, beti antzekoak direla iradokiz. Horregatik jotzen dugu behin eta berriro mitoetara. Ez iragana errepikatzeko, oraina hobeto ulertzeko baizik.

Guk ere badugu gure tradizioa, gure mitoak, baladak, alegiak, kopla zaharrak... Nik hor aurkitu ditut bitxi gehien. Akorduan dut "Bereterretxen khantoria" ezagutzean sortutako zirrara, zein modu biribil eta ederrean aurkezten zaigun gaia hasieratik bertatik, traizio batez arituko dela iradokiz: Haltzak ez dü bihotzik, / ez gaztanberak ezürrik, / Ez nian uste erraiten ziela/ aitonen semek gezurrik. Akorduan dut ere gure Odiseo izan litekeen Jaun Zuriano irakurtzean sentitutakoa, "Leixibatxo"aren istorioarekin topo egin nuenekoa, edota amaginarreba gaiztoaren gaia nola lantzen den "Prantzia Kortekoa"n.

Batzuetan badirudi unibertsala kanpotik datorkigula beti. Greziatik, Erromatik, Londresetik edo New Yorketik. Baina unibertsala begirada kontua ere izan daiteke. Gizakiaren beldurrak, desirak, galerak eta ametsak kontatzeko gai den istorio oro izan daiteke unibertsala. Eta gurean ere badugu baliatzeko moduko harribitxiak.



Aiaraldean peajerik ez!

KEPA ALAÑA

Datorren azaroaren 11 data garrantzitsua izango da Aiaraldearentzat, egun horretan AP-68 autobidea Foru Aldundiena izango baita berriz.

Autobide honen emakida 2011n amaitu zen eta Jose Maria Aznarrek beste 15 urtez luzatu zuen bere kasa. 2026ra arte. 15 urte hauetan kaltetuenak Aiaraldeko eta Nerbioi-goienako biztanleak izan gara, autopista horretatik gertu bizitzeagatik.

Eta orain doakoa izan beharko litzatekela, EAJ, EH Bildu eta PSE-EE alderdi politikoek adostu eta erabaki dute zigortuta jarraitu behar dugula, eta ordainduko duten arabar bakarrak izango garela. Prezioa pixka bat gehiago jaitsiko digutela diote, baina norbaitek ulertuko luke gu izatea ordaindu beharko genukeen arabar bakarrak anbulatoriora joateagatik? Edo gure seme-alabak jolastokira eramateagatik eskola publikoan? Guk ezetz erabaki dugu!

Duela bost urte Aiaraldean sortu zen AP-68 Autopista Dohainik plataforma zerbitzu publikoko bokazioarekin. Arabako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan egon gara eta alderdi politiko hauen erdi egiak banan-banan desmuntatu ditugu.

Gure argudioetako bat ere ez da ezeztatu eta ez dira gai izan guri ordaintzen jarraitzeko datua edo arrazoia emateko. Haien motibo bakarra diru-bilketa da. (...)

Argudio guztiak EAJri, EH Bilduri eta PSE-EEri egin dizkiogun bi galderatan laburbiltzen dira. Erantzunik jaso ez duten galderak:

A) Euskadin zergatik ordaindu behar ditugu bidesariak gure zergekin 20 aldiz finantzatuta daudenean, amortizatuta daudenean eta zero euroko kostuan jaso dituztenean?

B) Zergatik izan behar dugu Aiaraldeko biztanleak bidesariak ordaintzen ditugun arabar bakarrak?

Hauteskundeak hurbiltzen ari diren honetan, une egokia da herritarrek galdetzeko alkate eta zinegotziei. Zergatik?

Plataforma hau gonbidatzen gaituzten edozein eztabaidatan parte hartzeko prest dago. Bitartean Foru Pasea deitu dugu.

Gaztelako Erresumatik arau edo lege bidegabeak iristen zirenean euskal erakundeek Foru Pasea aplikatzen zuten: men egitea baina ez betetzea.

Horregatik, plataforma honek Arabako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dituen agerraldietan, gidari guztiei dei egiten die Foru Pasea aplikatzera. Arau bidegabe hau beteko dugu. diskriminatzailea, arbitrarioa eta neurrigabea dena, baina ez dugu bidesaririk ordainduko. Peajerik ez! ***Artikulu osoa Aiaraldea.eus atarian irakurri daiteke.***

"Prezioa pixka bat gehiago jaitsiko digutela diote, baina norbaitek ulertuko luke gu izatea ordaindu beharko genukeen arabar bakarrak anbulatoriora joateagatik? Edo gure seme-alabak jolastokira eramateagatik eskola publikoan? Guk ezetz erabaki dugu!"

Agenda

2026/10/07
2026/10/20

INFO +
aiaraldea.eus

AIA RAL DEA - FAK TO-RIA

Musika

11.07 Larunbata
19:00 LAUDIO
II. AZAROCK JAIALDIA
Orbeko Etxea

11.07 Larunbata
20:00 BARANBIO
ANTIFA HARDCORE FEST
Garrastatxuko Txosna

11.08 Igandea
18:00 URDUÑA
ALL ANTICA: ANTZINAKO MUSIKA KONTZERTUA
Familia Sekretuaren eliza

11.09 Astelehena
17:30 ARTZINIEGA
ARTZINIEGAKO ABESBATZA FEMINISTAREN ENTSEGUA
Kultur Etxea

XV. POTEO MUSIKALA

11.13 Ostirala Los Retumbes eta Rock My Soul



11.14 Larunbata Piano on the Rocks, Gwaya, Swanp Stringband, Ziin and the Melody Breakers, Rock y Rollo, Flamenco y Norte, Sugramas, Guillterm, Los Ibañez
11.15 Igandea Eriz & Totum Revolutum, Room, Carranza trio, Eder Portoles, Space Jam Jam
20:00 URDUÑA · Urduñako tabernak

Familia, haur

Kirol jarduerak

IX. URDUÑAKO MENDI LASTERKETA



11.08 Igandea
09:00 URDUÑA · Foru Plaza

MENDI JARDUNALDIAK



11.12 Osteguna TASIO MARTIN, "COINCIDENCIAS PATAGONICAS"
11.13 Ostirala SERGI RICART, "EL RIO DE LOS SIETE NOMBRES"
11.14 Larunbata ALMUDENA MORALES, "LAS OCHO DE HUSHÉ: ESCALADORAS DE LA LIBERTAD"
19:00 AMURRIO · Amurrio Antzokia

11.15 Igandea
09:30 LAUDIO
41. LAUDIOKO IBAR KROSA
LAUDIO ATLETISMO TALDEA
Ellakuriko kirolgunea

11.12 Osteguna
19:00 URDUÑA
ETXEBIZITZARI BURUZKO HITZALDIA
Urduñako Udalak gidatuta
Alondegia

11.13 Ostirala
17:00 URDUÑA
LIBURU-ORRIEKIN LORE SORTAK EGITEKO TAILERRA
Udal liburutegia

11.14 Larunbata
11:00 ARTZINIEGA
INDARKERIA OBSTETRIKOA ETA MENOPAUSIA
Kultur Etxea

Ikuskizunak

11.05 Osteguna
18:00 AMURRIO
"BIHOTZA: ARABAKO BIZITZA, INOIZ IKUSI EZ DUZUN MODUAN"
Dokumentalaren proiekzioa
Amurrio Antzokia

11.07 Larunbata
18:00 AMURRIO
"TRETATXU"
Anita Maravillas konpainia
Amurrio Antzokia

11.07 Larunbata
18:00 AIARA
ANDONI AGIRREGOMEZKORTAREN BAKARRIZKETA
Txakolin Bizi dinamika
Arcos de Quejana

11.08 Igandea
11:00 URDUÑA
POESIA ERREZITALDIA
Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna 2026
Amurrio Antzokia

11.08 Igandea
12:30 ARTZINIEGA
BISITA ETA ERAKUSTALDI ARTISTIKOA SANTXOTENA MUSEOAN
Txakolin Bizi dinamika
Santxotena Museoa

11.14 Larunbata
18:00 ARTZINIEGA
MAGIA ZUZENEAN
Txakolin Bizi dinamika
Kultur Etxea

Familia, haur eta gazteen jarduerak

11.06 Ostirala
17:00 LAUDIO
KEXKAMUXELAK EGITEKO TAILERRA
Faktoria

11.06 Ostirala
17:00 LAUDIO
MAHAI JOLASAK
Gaztelekua

11.07 Larunbata
17:00 LAUDIO
TRIVIAL TXAPELKETA
Gaztelekua

11.11 Asteazkena
17:30 LAUDIO
GURASOEN TXOKOA
Psikologiako profesionalek eskainitako saioa
Parkea Kulturgunea

11.13 Ostirala
17:00 LAUDIO
SEXUALITATE TAILERRA
Gaztelekua

Ellakuriko kirolgunea

Ikastaroak eta hitzaldiak

11.05 Osteguna
18:30 LAUDIO
“REDIMIR Y ADOCTRINAR. EL PATRONATO DE PROTECCIÓN A LA MUJER (1941-1985)”
Liburuaren aurkezpena, Carmen Guillen Lorenterekin
Lezeaga Aretoa

11.07 Larunbata
12:30 LAUDIO
“LOTURAK” LIBURUAREN AURKEZPENA
Faktoria

11.08 Igandea
11:00 AIARA
ILE EGOKITZAILEA EGITEKO TAILERRA
Luiaondoko Kultur Etxea

11.07 Larunbata
18:00 OKONDO
BERTAKO PRODUKTUEN SUKALDARITZA ERAKUSTALDIA
Txakolin Bizi dinamika
San Romango Eskola

11.08 Igandea
11:00 LAUDIO
ELIKADURA BEGANO TAILERRA
Gurdi Gaztetxea

Txakolin Bizi dinamika
Kultur Etxea

11.15 Igandea
12:00 ARTZINIEGA
ANTZEZTUTAKO BISITA
Txakolin Bizi dinamika
Artziniega Museoa

Bestelako jarduerak

11.06 Ostirala
20:15 AMURRIO
MASA KRITIKOA
GUK eskultura

11.07 Larunbata
11:00 LAUDIO
ARROPA PLAZA EKIMENAREN IREKIERA
Faktoria

IRRINTZI EGUNA



11.14 Larunbata
11:00 OROZKO · Zubiaur Plaza


11.14 Larunbata
13:30 ARTOMAÑA
AIARALDEKO ESPERIENTZIA GASTRONOMIKOA
Txakolin Bizi dinamika
Ardantze jatetxea

11.15 Igandea
12:30 ARETA
ARETAKO ENKANTEA
Aretako kultur Etxea

Kartelera



AMURRIO ANTZOKIA
La Invitación
AZAROAK 08, 09
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(6,5 / 5 euro)
19:00



DONIBANE ARETOA
Leones en invierno
AZAROAK 08
IGANDEA (3,5 euro)
19:00



DONIBANE ARETOA
Gungo eta harpetar jokoak
AZAROAK 15
IGANDEA (5 / 4 euro)
16:00



DONIBANE ARETOA
Ruega por nosotras
AZAROAK 15
IGANDEA (5 / 4 euro)
19:00

Kultura



IBON CORMENZANA (Bilbo, 1972) MUNDO CERO EKOIZTETXEA ERAMAN DU URDUÑARA HIRIAN *EL BUS DE LA VIDA* GRABATU ONDOREN. PROIEKTUAREN ALDE SOZIALA ETA ARTISTIKOA AZALDU DITU.



Testua
Aitor Aspuru Saez

Bizi izan zara Londresen, Houstonen, Bartzelonan... baina proiektu bat garatzera etorri zara Urduñara, nolakoa izan da bidaia hori?

El bus de la vida filmaren bitartez bukatu nuen Urduñan. 2023an grabatu genuen hemen. Nire aitite eta amama hemengoak ziren, baina nik ezagutu nituen jadanik Deustun bizi zirenean eta soilik bertaratu nintzen Urduñara eurak ehorzteko. Egun euritsua izan zen... gutxi gogoratzen nuen.

El bus de la vida-rako kokapenak bilatzen ari ginela, proposatu nuen, kostaldeko herriak ez ezik, hau ere ikustea eta erabaki genuen hona etortzea. Hor hasi zen dena.

Harremana duzu hiriarekin, zerbait espero duzu bere aldetik?

Ez dut ezer espero. Lagunak egin ditut, jendeak ondo tratatu nau eta hemen egon nahi izan dut. Nik ere egin ohi dudana egingo dut, hemen edo beste toki batean, baina suertatu da hemen izatea, gustura bainago.

Mundo Cero ekoiztetxea da hemen instalatu duzun proiektua. Zeintzuk dira bere ezaugarriak?

Ekoiztetxe gisa ezberdina da osagai soziala duelako. Asmoa da jendea inspiratzea eta mugiaraztea egingo ditugun filme eta dokumentalen bitartez. Eragin soziala lortu nahi dugu gizartea hobetzeko.

Nola lortu nahi duzue hori?

Alde batetik, kontzientzia sortu nahi dugu sortzen ditugun istorioen bidez. Bestalde, proiektu bakoitza Gobernuz Kanpoko Erakunde bati edo fundazio bati lotzen diogu eta etekinak hara bideratzen ditugu.

Adibidez, *Cuatro paredes* pelikulan Save the children erakundearekin egin genuen lan. Istorio horrek kontatzen zuen familia baten egoera, klase ertainekoak izatetik pasatzen dira ia bazterketa soziala pairatzeko zorian egotera eta etxebizitza uztera.

Horrekin babestu genuen GKEk duen Impulsa progra-



“BILBO KENDUTA, ZIURRENIK URDUÑA DA GRABAKETA GEHIEN IZAN DITUEN TOKIA BIZKAIAN”

ma. Egitasmo horrek hezten, elikatzen eta babes psikologikoa ematen die bazterketa arriskuan dauden umeei. Lortutako diru sarrerekin luzatu ahal izan zuten ematen duten laguntza.

Mundo Cero ekoiztetxeak proiektua bera eta etxe bati erabilera ematea ekarri du.

Espazio fisiko bera bazen aspaldiko ametsa, ekoiztetxe soziala sortzeko, non filmak hasi eta bukatu ahal ziren. Egonaldiak eta ikastaroak ere egin nahi ditugu ikuspegi sozial horrekin. Muntaketa, gidoia, ekoizpena... ikasteko saioak eskaini nahi ditugu eta post-produkzio estudioa eratu dugu dirurik ez duten proiektuak babesteko, betiere gure filosofiarekin bat egin dezaketenak.

Orain saiatzen ari gara hastapenetan dauden zinemagileak profesionalekin elkartzen, mentore lana egin dezaten eta proiektuak gauzatu daitezen.

Proiektu honek ez du zerikusirik zure ibilbide profesionalarekin, finantzen munduan hasi baitzinen.

Gogoko ditut erronkak eta abenturak, baina ez dut sekulako zailtasunekin bizi. Helburua da industria gehiago erakartzea, baina gu ez ginen lehenengoak heltzen. *El bus de la vida* grabatu baino lehen beste batzuk egon ziren Urduñan. Azaroan *El piso* filma egingo dugu eta Udalak aipatu zidan hogeigarren pelikula izango dela.

Bilbo kenduta, ziurrenik Urduña da grabaketa gehien izan duen tokia Bizkaian, hau da, berez funtzionatzen du.

Nolakoa izan zen zure bidaia finantzetatik zinemara?

Nahiko naturala izan zen. Zientzia ekonomikoak ikasi nituen, baina ez zen nire tokia. Aldi berean, zinema zerbait arrotz gisa ikusten nuen, ametsa. Baina finantzen esparruan lortutako diruarekin izena eman nuen zinema ikastaro batean Londresen. “Izan zaitez zinemagile zortzi asteburutan”, hori da nire trebakuntza, baina norbaitek zerbait nahi duenean, lan egiten du lortzeko. Liburu asko erosi nituen gidoiak idatzi edo zuzentzeko eta aurrezten nuen diruarekin film laburrak egiteari ekin nion.

Gero salto egin nuen nire lehen filma grabatzeko eta *Jaizkibel* izan zen emaitza 1999an. Hor egun gehiegi behar izan nituen pelikula egiteko. Ez zen film labur bat abuztuan egin ahal nuena eta, ondorioz, lana utzi eta horretan sartu nintzen. Ekoitzetxea sortu nuen.

Baina zuk gehiago lan egiten duzu ekoizle moduan. Alegia, sari ugari lortu dituzu *As bestas* edo *Robot dreams* filmeekin.

Bai, baina nire kasuan naturalagoa da ekoiztea zinema egitea baino. Ekonomia ikasi nuen eta nolabait negozioak bazuen zerikusi handiagoa nire ekonomista lanarekin, zinema zuzendaritzarekin baino.

Ekoizteak badu zerikusia ere besteen proiektuak babestearekin. Hasi nintzen zinema jaialdietan ezagututako zinemagileekin. Ikusten nituen euren film laburrak eta pentsatzen nuen oso onak zirela, nireak baino hobeagoak, baina gero zailtasunak zituzten finantzazioa lortzeko, oso zaila baita norbaitek ekoiztea pelikula bat.

Horregatik pentsatu nuen lagundu behar nituela zinemagile horiek nik nekizkien produktore trikimailuekin.

Ekoizle baten lana da diru iturriak lortzea, nagusiki?

Bai, neurri batean. Finantzazioa lortu eta zuzendariarekin erabakitzea nora joan behar duen gidoiak eta beste aukera guztiek. Argazki zuzendari batekin edo bestearekin emaitza oso ezberdina da, baita antzezleekin ere. Hori landu behar da zuzendariarekin, bere buruan dagoena erdiesteko.

Ekoizle lanak egiteko lehentasuna eman diezu besteen proiektuei, nolakoa da prozesu hori?

Batzuetan joaten zara zinemara eta ikusten duzu oso film ona. Nire kasuan ezagutzen nituen beste zuzendari batzuen lana eta motibatzen ninduen lortzeak eurek euren filma egitea. Ez zen nire sorkuntza baztertzea, baizik eta esatea, ea lortzen dugun *Blancanieves* egitea. Erokeria hutsa zen eta gidoia eskuan, proposatzen genuen filma zuri beltzez izatea. Gero aitortza jaso du, baina hasieran ez ziguten kasurik egin eta zaila izan zen finantzazioa lortzea.

2007tik 2018ra arte ez zenuen berriro filmerik grabatu.

Ekoizten hasi ez ezik, zuzendaritza utzi nuen film bat egin ostean zalantzak izan nituelako. Ez nekien zuzendari ona nintzen edo ez eta ez nekien jarraitu behar nuen. Segurtasun falta. Horrez gain, krisialdi pertsonalek eragina dute. Banaketa baten ostean, hasi nintzen korrika egiten mendian. Horregatik ere nahi izan nuen Urduñara etortzea, ez soilik nire aitite eta amamaren jatorria izateagatik; niri mendiak ere mugiarazten nau eta horregatik grabatu genuen ere *El bus de la vida* hemen.

Krisi pertsonalek eta segurtasun faltak eraman ninduten zuzentzen uzteari eta beste krisialdi pertsonal baten ondorioz erabaki nuen berdin zitzaidala jendeak zer pentsatzen zuen nire lanari buruz. Nik osagai sozialeko istorioak kontatu nahi ditut eta egin nahi dut. Motibatzen ez banau, ba uko egingo diot. Gauzak horrela, *Alegría tristeza* egin nuen Iruñean Roberto Alamo eta Manuela Vellésekin eta azken zortzi urteetan bizitza osoan baino gehiago zuzendu dut.

Kultura

Sandra Castaño amurrioarrak *Alas* argitaratu du, bere lehen album ilustratua

5 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako lanak umorea eta ikaskuntza uztartzen ditu, baserriko pertsonaien eta animalien abenturen bidez.



Testua **Garazi Cuadra Alvarez**



Sandra Castañoren lehen album ilustratua da Alas. **Aiaraldea.eus**

Sandra Castaño 25 urteko ilustratzaile amurrioarrak *Alas* argitaratu du, bere lehen album ilustratua, Thule Ediciones argitaletxearen eskutik. 5 eta 6 urte bitarteko haurrei bideratutako lana da, eta umorea eta ikaskuntza uztartzen ditu.

Istorioan hegoak hazten zaizkie baserriko hainbat pertsonaiari eta animaliari, baita traktoreari ere. Hortik abiatuta, hegoak izateak ekar ditzakeen ondorioak eta egoera bitxiak erakusten ditu Castañok.

Sortzaile gazteak Leioan ikasi zuen Haur Hezkuntzako Gradua, eta album ilustratuen inguruan egin zuen gradu amaierako lana. Lan horren bidez, formatu horren interesa piztu zitzaion eta, ondoren, Bartzelonan album ilustratuei buruzko ikastaroa egin zuen. Gaur egun, ilustratzaile gisa egiten du lan, batez ere, album ilustratuak eta haurrentzako ilustrazioak sortzen.

Alas sortzeko ideia unibertsitateko ikasgelan bertan otu zitzaion, irakasleak album ilustratu bat egiteko eskatu zuenean. Hasieran, marrazketa tradizionalarekin esperimentatu zuen, baina, ondoren, teknika digitalak probatzen hasi zen. Pixkanaka, lanak forma hartu zuen, eta proiektua garatzen jarraitu zuen, kolore-proba ezberdinak eginez eta istorioaren testua idatziz.

Sorkuntza-prozesuan, umoreak garrantzi handia izan du Castañorentzat. Izan ere, umorea erabiltzen saiatu da istorioaren erritmoari laguntzeko eta irakurleen arreta erakartzeko.

Ikasgelatik argitaletxera

Proiektua urtarrilean hasi zuen, eta irakaslearen laguntza izan du prozesu osoan: "Irakaslearen laguntzari esker atera dut aurrera proiektua", azaldu du ilustratzaileak.

Lehen zirriborroa amaitutakoan, maketa bere kabuz eta eskuz egin zuen. Ondoren, argitaletxeei aurkeztu zien lana, eta Thule Edicionesesk egin zuen proiektuaren aldeko apustua.

Bidean, hainbat aldaketa egin behar izan ditu, bereziki testuari eta istorioaren erritmoari lotutakoak. Hala ere, sorkuntza-prozesua amaituta eta liburua argitaratuta, beste erronka bati egin behar dio aurre orain: irakurleen erantzunari.

"Publikoaren feedback-a jasotzeak urduri jartzen nau; ez dakit zer-nolako harrera izango duen lanak", aitortu du Castañok. Argitalpenaren ondorengo unea jotzen du prozesuko zailenetakotzat, irakurleen iritzia ezagutzeko zain baitago.

> **"Publikoaren feedback-a jasotzeak urduri jartzen nau;** ez dakit zer-nolako harrera izango duen lanak"

Etorkizunari begira

"Beste proiektu batzuk ditut esku artean", azaldu du Castañok. Hainbat album ilustratu ditu garatzeko eta plazaratzeko, eta argitaletxeen erantzunen zain dago. Hala ere, argitalpen-prozesuak motelak izan daitezkeela ohartarazi du. Bitartean, 2027rako egutegi antolatua prestatzen ari da, eta *Alas* liburuaren salmenta sustatzea ere aurreikusi du. Epe luzerako helburua argi dauka: "Nire helburua album ilustratuetatik bizitzea da". Haur Hezkuntzako ikasketek ere eragina dute bere lanean. Irakasle gisa, album ilustratuek hezkuntzan duten garrantzia azpimarratu du, bai ikasgelan, bai ikasgelatik kanpo.

Bere ustez, mota horretako liburuak, ondo pasatzeko tresna izateaz gain, ikaskuntza sustatzeko baliabide baliotsuak ere badira.

Horregatik, *Alas* liburua, dibertigarria izateaz gain, ikasteko tresna egokia dela nabarmendu du. Mota horretako argitalpenen mundua ezagutzera animatzen ditu irakurleak: "Aberasgarriak diren elementu asko gordetzen ditu album ilustratu batek".

Castañoren lanen berri izateko, haren Instagram kontua bisita daiteke: @sandrinkula.

Kultura

Oroiminaren hirietan aldaroka olerki liburua aurkeztu du Jon Iturregik

Testua
Aitor Aspuru Saez

Jon Iturregik iaz irabazitako Blas de Otero-Angela Figuera poesia lehiaketaren XVIII. edizioaren fruitua jasotzen jarraitzen du, *Oroiminaren hirietan aldaroka* poesia liburua aurkeztuta.

Iragan urriaren 21ean Donostian egin zuen liburu berriaren aurkezpena Iturregik, eta Inazio Mujika Erein argitaletxeko kidearekin eta hainbat hedabideren arreta erakarri zuen. Iturregik azalpen luzea eskaini zuen bere olerki sortari buruz, laupabost urtetan sortutako poemak baitira: batzuk unibertsitate garaian, Euskal Herrian zein Ingalaterran masterra egin bitartean, beste batzuk pandemia ostean eta azkenak iaz.

Hiri onirikoa

Olerkiak hainbat garaitan idatzi zituenez, nola josiko zituen pentsatu eta hiriaren kontzeptua otu zitzaion: "Ohartu nintzen irakurtzen nituen autoreen poema batzuetan hiria ez zela gure bizitza garatzen dugun tokia soilik, ez zen dekoratu soil bat".

Edonola ere, hiri horiek ez dira fisikoak: "Poeta hauen hirien zorupean, hiri ezkutu eta urperatu bat agertzen zitzaidan, hiri oniriko bat, subkontzientearen hiri bat, niretzat gutako bakoitzaren barne munduaren isla zena, zeinak gure amets, amesgaizto, gure handitasun, gure miseria eta kontraesan guztiak barneratzen zituen. Eta ideia horretatik abiatuta konturatu nintzen nire poemen zati handi batek lotura estua zutela horrekin".

Izenburuan oroimina ere agertzen da eta horren azalpena errazagoa da, egilearen iritziz: "Nostalgia. Badira haurtzarora eramaten gaituzten poemak, badira iraganera garamatzaten kantuak, liburuak, oroitzapenak. Eta horiekin guztiekin eraikitako liburua da".

Iturregik erantsi du testua bost atalek osatzen dutela: *Musei esandakoak, Goraintziak haurtzaroari, Oroiminaren hiriak, Alferrikako ihesa* eta *Itzulera*.

Guztietan topatu ditu olerkariak zenbait ardatz: "Agertzen diren pertsonak, oro har, gazteak edo heldu-gazteak dira. Badago barne-gatazka: identitatearekin, balioekin eta munduan hartu beharreko tokiarekin eta aipatzen dira bizitzan mugarri izan daitezkeen gertaerak (lagun baten heriotza kasu)".

Edonola ere, laudioarraren aburuz, liburuak badu pertsonaletik, "baina badu nire belaunalditik eta kolektibotik ere".

Erreferentziak

Baliatu dituen erreferenteei dagokienez, Iturregik oso erregistro anitzak aipatu ditu: "Agertzen dira gaur egungo musika taldeak, adibidez Fontaines DC, Tatxers, baita idazle gazteak (Lizar Begoña, Leire Vargas...) edota eguneroko modernoaren sinboloak: mugikorrak, Amazonen banatzaileak, Spotify bezalako plataformak...".

Halaber, zailagoak diren beste batzuk ere kokatu ditu, "The Who taldearen letra bat edo Christopher Marlow idazlearen aipu bat".

Hizkuntza poetikoa

Egileak ohartarazi du erabili duen hizkuntza ez dela zaila: "Badu kalitate minimoko poesia liburu batek ezinbestean izan behar duen hizkuntza jasoa, eta hizkuntza poetikoa. Baina ez bereziki jasoa, irakurleak ez dezala pentsa liburu honetan beste munduko handitasunik edo solemnitaterik topatuko duenik, gehiagotan topatuko ditu kaleko hizkuntza, garaiko esamoldeak eta hiriko edo eguneroko erreferentziak. Gainera, poema guztiak bertso libreetan idatzita daude".

Azaroaren 29ra arte luzatu du Santxotena Museoak panpinen erakusketa

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

2.000 panpin baino gehiagok osatzen dute Santxotena Museoko *Nostalgia baten esnatzea* erakusketa. Panpina eta jostailuen bidez XIX. mende amaieratik hasi eta gaurdainoko bidaia proposatzen du bildumak.

Hain zuzen ere, panpinek "gizarte aldaketak islatzeko" duten gaitasuna jarri nahi izan du balioan Teresa Lafraguak. "Urte luzez, hainbat errealitate apenas agertzen ziren jostailuetan, eta desgaitasuna edo ezaugarri fisiko jakin batzuk zituzten pertsonek aurreiritzi eta gizarte-oztopo handiei egin behar izan zieten aurre. Gaur egun, begirada hori aldatzen ari da, eta panpinak ere aldaketa horren lekuko dira", aldarrikatu du museoko zuzendariak

Erakusketaren IV. edizioa da aurtengoa eta udan inauguratu zuten. Bildumak izandako harrera positiboaren aurrean erakusketa luzatzea erabaki dute Artziniegako Museoko arduradunek, eta azaroaren 29ra arte egongo da ikusgai Nostalgia baten esnatzea erakusketa. Gainera, panpinen erakusketak Xabier Santxotena eskultorearen obrari eskainitako Santxotena Tailer Museoan murgiltzeko aukera ematen du.



Kirola

“HAU IZAN DA **NIRE DENBORALDIRIK ONENA**”



AHALEGINAK ETA BI EGIN DITU EUSKALTEL EUSKADI TXIRRINDULARITZA TALDEAK DENBORALDIA MUNDUKO 30 TALDE ONENEN ARTEAN BUKATZEKO, ETA **GOTZON MARTIN** (Orozko, 1996) GILTZARRI IZAN DA BIDE HORRETAN. LORTUTAKOAZ LUZE MINTZATU DA.



Testua eta argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Denboraldia lehenengo egunetik azken egunera lehiatu ostean atsedena hartzea dagokizu orain. Ohi baino gehiago luzatu da zure egutegia?

Karrera kopuruari dagokionez izan dut beste urteren bat lasterketa gehiagorekin. Baina egutegiko lehenengo lasterketak diren Valentziako klasikoetan hasi nuen denboraldia, eta egutegiko azken egunera arte lehiatu dut.

UCI sailkapeneko lehenengo 30 taldeen artean sartzea lortu duzue denboraldi amaieran.

Denboraldia oso ondo hasi genuen. Urte hasieran ez genuen lehenengo 30en artean sailkatzeko asmorik, inondik inora. Ez genuen horretarako talde aproposik. Aurtengo denboraldian ez dugu fitxaketarik egin diru faltagatik. Gainera, aurreko denboraldiko bi esprinterrak taldetik kanpo geratu ziren; David Dekker lesio baten ondorioz geratu zen kanpoan eta Jon Aberasturirentzat ere ez zegoen zer eskaini, aurrekontu falta zela eta. Aurreko denboraldiko talde berdinarekin ekin genion denboraldi berriari, talde ahulagoa akaso.

Denboraldia, ordea, oso ondo hasi genuen eta gure burua TOP-30aren barruan ikusten hasi ginen. Denboraldi erdiko blokean, ordea, beherakada izan genuen. Txapelketa nazionaletan puntuak lortzeko talde egokirik ez dugu guk eta UCI sailkapeneko beste talde batzuek aurrea hartu ziguten: Bardianik, Hungariako MBH Bank-ek... Horren ostean etorri ziren Ordiziako klasikoa, Eslovenia... udako lasterketa horietan ondo moldatu ginen baina errematatzea falta izan zitzaigun, eta sailkapeneko aurkariek gurekiko zuten distantzia are gehiago handitu zen.

Frantziako Cholet Agglo eta Vendée lasterketetan, bai eta Aljerian jokatutakoetan, ikusi genuen oraindik ere aukerak bagenituela. Frantzian puntu asko atera genituen eta asko hurbildu ginen TOP 30ean sartzera.

Noiz ohartu zineten bazegoela sailkapenean tokia egitea?

Hong Kongen jokatutako lasterketaren ostean ikusi genuen bagenuela sailkapenean sartzeko aukera

Aljerian, ordea, bazegoen Euskaltel-Eusakdiren aldeko sugarra piztuta.

Piztuta agian bai, baina nik oso zail ikusten nuen. Gakoa ez zelako soilik puntu asko egitea, baizik eta gure aurkariak ziren taldeek punturik ez lortzea. Eta Italiako urte amaierako klasikoek gure kontra egiten zuten.

Hong Kong zen gure egutegian programatutako azken lasterketa. Azken momentuan erabaki genuen Panamara joatea. Bi aukera genituen mahaigainean urriaren 18aren aurretik puntu gehiago lortzeko: edo Panama edo Serbia. Aurkariek zer egingo zutenaren zain egon ginen erabakia hartu aurretik.

“Gakoa ez zelako soilik puntu asko egitea, baizik ete gure aurkariak ziren taldeek punturik ez lortzea”

Hong Kongen bukatu behar zenuen denboraldia, baina azken momentuan Panamara bidaiatzea erabaki zuen taldeak. Exijentzia maila altua izan da azken hilabeteetan.

Panamara gindoazela esan zidatenean behera etorri nintzen (barreak). Hong Kongen bukatu behar nuen denboraldia eta burua horretarako nuen prestatuta. Eta halako batean, Panama! Horrek aste oso bat gehiago eskatzen zigun etxetik urrun eta lehian. Panamara joatea ez da Hong Kongetik Txinako beste hiri batera joatea bezalakoa, bi eguneko bidaia oso luzea izan zen.

Jorgek [Azanza] asko animatu eta motibatu gintuen; beti alai beti bromak egiten. Behin Panamara iritsita oso ondo egon gara, oso giro ona izan dugu.

Eraman genezakeen talderik onena eraman genuen Panamara:

Berasategi, Isasa, Hodei, Gari... Lehenengo egunean oso ondo egin genuen eta bigarrenean hobeto. Hirugarrena pixkat korapilatu zitzaigun, baina lortutakoari eustea zen helburua, beraz pozik.

Asko gustatu zaigu lasterketa. Hiru egunak oso politak izan dira, eta bertako antolakuntzak oso ondo zaindu gaitu. Gauzak ateratzen direnean gustura egotea erraza da.

Garaipen batekin borobildu duzu gainera bai Panamako bidaia, baita denboraldia ere.

Bai, beti izango dut buruan Panama. Profesional mailako nire lehen garaipena izan da gainera. Gaur egun oso zaila da garaipena lortzea, lasterketa guztietan dagoen maila itzela da; hamargarren postu bat garaipen bat bezala ospatu behar duzu, besoak altxatu ez arren (barreak).

Esan daiteke beraz, egin beharrekoak eginda amaitu duzuela denboraldia?

Lortu dugu bai munduko 30 talde onenen artean sailkatzea, eta horri esker datorren urtean Espainiako Vueltan edo beste lasterketa handi batean parte hartu ahalko dugu. Auskalo non egongo garen, espero dugu batean parte hartzea, behintzat. Baina orain beste batzuei dagokie horren alde lan egitea, bulegoetatik.

“Beti izango dut buruan Panama, profesional mailako nire lehen garaipena”

Frantziako Tourreko parte-hartzearen inguruko zurrumurrua ari da zabaltzen azken egunotan.

Antolatzaile bera dute Espainiako Vueltak eta Frantziako Tourrak, eta mahaigainean dauden piezekin osatuko dute puzzlea. Argi dago Caja Rural, Burgos eta gu lasterketa horietakoren batean egongo garela; ikusteke dago bakoitza non. Uste dut Burgosek duela Tourrean egoteko aukera gehien, aurten Total Energies taldeko hiru txirrindulari frantziar fitxatu dituzte. Izan ere, ez dago argi Totalek datorren denboraldian jarraituko duen edo ez. Hiru frantziar fitxatzea keinu bat da Tourrera begira.

Gu itzuli handi batean egotearekin pozik. Tourrean egotea izugarria litzake eta egia da Mikelek [Landa] izan dezakeela *tiroia*. Akaso Tourrak ere nahiko lituzke bespeteurte batez Pirinioak eta Alpeak marea laranjak harturik ikustea.

“Uste dut Burgosek duela Tourrean egoteko aukera gehien. Aurten Total Energies taldeko hiru txirrindulari frantziar fitxatu dituzte; keinu bat da Tourrera begira”

UCI puntuen bila buru-belarri aritu zarete eta txirrindulari guztien lana izugarria izan da. Horrek taldea indartzeko balioko zizuen ere.

Piña handia egin dugu. Talde erdia Aljerian zegoen bitartean gainerako guztiak adi-adi geunden, lortzen genuen puntu bakoitza zenbatuz. Eta kontrara. Panaman geundela ere izugarrizko babesa jaso genuen gurekin etorri ez ziren gainerako taldekideen partetik.

Lehenengo 30 taldeen artean sailkatzeko aukera parez pare izatea egundoko motibazioa izan da guretzat. Ate asko zabaltzen zaizkigu datorren denboraldiari begira, horien artean itzuli handi bat lehiatzeko aukera. Nik dagoeneko hiru Espainiako Vuelta ditut eginda, baina mundu guztiari esaten diot maiz, nahiko nukeela laugarren bat lehiatu.

2024an lehiatu genuen gure azken Espainiako Vuelta. Hurrengo urtean parte hartzeko langa TOP-30ean jarri zuten, eta bi denboraldiz egon




Kirola

gara hortik kanpo. Aurten ezinbestekoa genuen lehenengo 30 taldeen artean sailkatzea.

Zer du berezia Espainiako Vueltak zuretzat?

Oso lasterketa gogorra da. Lehia biziko 21 egun dira, ia atsedenik gabe. Beroa izugarria da, erritmoa oso altua da... Mentalki oso ondo egon behar da prestatuta. Nik hiru ditut eginda eta horrek lasaitasuna ematen dit. Nire bigarren ediziora lesio larri batetik iritsi berria nintzela egin nuen, eta amaitzea lortu nuen. Uste dut beste bi Espainiako Vueltan nire maila eman dudala, eta gustura geratu naiz egindako lanarekin. Badut errepikatzeko gogoa.





“Agerikoa da Mikel Landak taldearekiko duen konpromisoa eta horrek ilusio handia transmititzen du”

Mikel Landa izango duzue taldean datorren denboraldian. Horrek ere emango zizuen motibazioa?

Bai, bai, bai. Bilera ia guztietan aipatzen ziguten datorren denboraldian Mikel izango genuela gurekin. Presio eta motibazio puntua izan da aldi berean. Denok amesten dugu itzuli handi batera Mikelekin joan ahal izatea, are gehiago etaparen bat irabazteko aukerak dituela jakinda.

Mikel bera ere Panaman izan duzue. Taldearekin duen konpromisoa ukaezina da.

Nik aurretiaz nekien Panaman izango zela, bere anaiak esan zidalako. Baina gainontzeko guztiek ez zekiten ezer, Jorgek berak ere ez. Panamako lehenengo lasterketan helmugan azaldu zen ikurrina eskutan, talde guztia zur eta lur geratu zen. Gure hotel berean egon da eta oso gertutik animatu gaitu. Agerikoa da taldearekin duen konpromisoa eta horrek ilusio handia transmititzen du.

Itzuli handietatik haratago, zer helburu jarri dizkiozu zure buruari datorren denboraldiari begira?

Nire ustez azken hau izan da orain arteko nire denboraldirik onena. Puntuei begiratuta, UCI puntu gehien lortu ditudan urtea izan da. Datorren urteari begira nire helburua bera izango da. Beraz espero dut denboraldi ona eta erregularra egitea, eta itzuli handi batera joateko aukera izanez gero hori ondo prestatu ahal izatea. Mikel taldean egonda aurreikustekoa da UCI puntu asko lortuko dituela eta horrek lasaitasuna emango digu askori. Baina, aldi berean, Mikelentzako lan egin beharko dugu eta horrek ahalegin extra bat suposatuko du. Niretzat oso motibagarria da. Nik Mikelekin harreman itzela daukat. Egunero entrenatzen dut berarekin, denbora asko pasatzen dugu batera. Lagun batentzat lan egitea da.

"Datorren denboraldirako oso indartuta irudikatzen dut nik marea laranja. **Jendea gogoz dago Mikel mailot laranja soinean ikusteko"**

Euskal Herriko Itzulian aritzeko gogoak ditut ere. Urtero parte hartu dut bertan, taldea Pro Continetal, mailara igo zenetik. Aurten Itzulia bukatu bezain laster Hainaneko Tourrera [Txina] bidali ninduten, eta egun bakarreko atsedena izan nuen tartean. Puntuen bila aritzeko lasterketa horietako bat zen Hainanekoa, baina mesedez, Itzulia ez kentzeko eskatu nion taldeari. Nahiago nuen biak egitea Itzulia galtzea baino.

2018tik daramazu profesional mailan lehiatzen. Asko aldatu da kirola urte hauetan guztietan?

Hasi nintzen denboraldian talde kontinentala ginen. Getxoko klasika, Amorebieta, Portugalgo itzulia... horiek ziren gure lasterketak. Gogoan dut sufritzen pasa nuela lehen urte hura; ondo nenbilen baina ez nuen inoiz nire burua aurrean ikusten. Hurrengo urtean, ordea, Abimotako Itzulia irabazi nuen Portugalen; ez zen UCI mailako lasterketa baina Portugalgo talde profesional guztiek parte hartu zuten. Inflexio puntua izan zen, hortik aurrera ikusi nuen pauso bat eman nezakeela aurrera. Euskaltel Pro Continetal mailara igo zen gainera, eta hirugarren denboraldi hura oso ondo hasi nuen. Pandemiaren ondorioz lasterketa gutxiago genituen baina







emaitza onak eskuratuz nindoan: Burgosen mendiko saria irabazi nuen, Italiako klasikaren batean bosgarren postua lortu nuen... Hortik aurrera uste dut urtero hobetu dudala. Eguneroko lana da. Entrenamenduak eta konstantzia.

Egia da gaur egun tropelean dagoen erritmoa ez dela duela urte batzuk generamana. Lehen askoz lasaiago aritzen ginen. UCI rankingak eta puntuen beharrak talde guztiak jarri ditu alertan. Guk badugu lehenengo 30 taldeen artean sartzeko gure norgehiagoka, baina talde handienek ere badute bere lehia sailkapeneko lehen postuan mantentzeko edo UCI World Tour kategoria ez galtzeko. Badirudi gu bakarrik garela puntu bila gabiltzanak, baina UAE taldeak ere puntuen beharra du lehen postuan mantentzeko; berdin LIDL Trekk edo beste edozein.

Presioa oso agerikoa izango da orduan.

Lasterketetan asko nabaritzen da hori, hiru puntu eskuratzeko ere sprint biziak egoten dira.

Presio horren gainetik zaleen bultzada dago. Nabaritu duzue marea laranja atzetik denboraldiko une erabakigarri honetan?

Sareetan egundoko olatua sortu da. Panaman ginela Twitterren sartzen ginen maiz eta zaleak flipatzen ikustea izugarria zen.

Datorren denboraldirako oso indartuta irudikatzen dut nik marea laranja. Jendea gogoz dago Mikel mailot laranja soinean ikusteko.

Kirola

HERRI KIROLAK

Komando taldeak irabazi du Arrankudiaga-Zolloko lehen herri erronka



Euskal herri kiroletan oinarritutako probetan neurtu dituzten indarrak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Garazi Cuadra Alvarez

Arrankudiaga-Zolloko bizilagunek herri erronkaren lehen edizioa ospatu dute urrian, iaz egindako Goikogane erronkaren lekukoa hartuz. Hilabetez luzatu diren kanporaketen ondotik, iragan urriaren 23an jokatu zuten final handia, "Doble J, doble Ieta doble M" eta "Komando" taldeen artean.

Herri-kirolak oinarri

Herri kirolen inguruan antolatutako probek osatu dute lehiaren oinarria. Besteak beste, sokatira eta gurpila altxatzea izan dira erronketako batzuk. Indarra, erresistentzia eta koordinazioa ezinbestekoak izan dira probak gainditzeko, baita taldekideen arteko elkarlana ere.

Sokatiran, bi taldeek indarrak neurtu behar izan zituzten sokaren alde banatan, aurkaria menderatzeko helburuarekin. Gurpila altxatzeko proban, berriz, indar fisikoa eta ahaleginari eusteko gaitasuna izan dira erronkaren gakoetako batzuk. Horrelako probek euskal herri kirolen tradizioa eta lehia uztartzen dituzte, parte-hartzaileen gaitasun fisikoa eta talde-lana agerian utziz. Lehiak, ordea, kirol-izaeraz harago joan nahi izan du. Izan ere, ekitaldian apustuak egin dituzte dirua biltzeko, Eskerrak Ahulak Garen elkarteari laguntzeko helburuarekin. Ekimen horrek izaera solidarioa gehitu dio jardunaldiari, lehia eta elkartasuna uztartuz. Kirol-proben ostean, "Komando" izan da garaile, "Doble J, doble I eta doble M "taldeari gailenduta. Horrela, Komandok beregana tu du Arrankudiaga-Zolloko Herri Erronkaren lehen edizioko garaipena.

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute jardunaldiaren inguruan. Egunean zehar sortutako giro ona nabarmendu dute, eta pozik agertu dira lehen edizioak izan duen harrerarekin. Haien esanetan, ekimenaren asmo nagusia ez da izan soilik lehia antolatzea, baizik eta elkartasuna sustatzea eta Eskerrak Ahulak Garen elkarteari laguntzea.

Parte-hartzaileek ere balorazio ona egin dute egunaren inguruan. Haien esanetan, probak gogorrak izan dira, baina taldearen arteko giroak eta ikusleen babesak lehiari aurre egiten lagundu diete. Garaipenaz harago, esperientziaz gozatu eta elkarrekin egun berezia bizitzea izan da taldeentzat garrantzitsuena.

Lehen edizio honekin, Arrankudiaga-Zollok euskal herri-kirolak, talde-lana eta elkartasuna uztartzen dituen ekimen berri bati eman dio hasiera. Komandorentzat izan da garaipena, baina jardunaldiak helburu solidarioa ere izan du, bildutako diruaren bidez Eskerrak Ahulak Garen elkarteari laguntzea.

BOLA

Bola txapelketako ligaxka fasea amaituta, azken txanpan sartuko dira



Ligaxkaren sailkapenek bidea ireki diete kaleratze faseei. **Ruperto Urkijo Kluba**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Tokiko Bola Txapelketa une erabakigarrian sartuko da berehala. Izan ere, ligaxka amaitu ondoren, kanporaketa faseen norgehiagoken txanda heldu da eta kategoria bakoitzak bere prozedura jarraituko du. 50 lagun baino gehiago batu dira orain arteko partidetan eta garailea ebaztea falta da.

Esaterako, bikoteka final-laurdenetik hasiko dira indarrak neurtzen azken partida abenduaren 12an jokatzeko. Kategoria mistoan final-zortzigarrenetatik ekingo diote finalerako bidea egiteari eta abenduaren 12an ere argituko dute inkognita. Emakumezkoen artean finalerdietako bi postu erabakita daude, Gurutze Badillo eta Izaro Arroitarenak. Baina beste biak final-laurdenetan ebatziko dituzte, finala abenduaren 5ean jokatzeko.

TXIRRINDULARITZA

Amurrion lortutako garaipena errepikatu Felipe Ortsek eta Sofia Rodriguezek dute Urduñako City Crossean



Felipe Orts Amurrion, iragan urriaren 31n. **Kuxkumendi**

Testua
Garazi Cuadra Alvarez

Felipe Orts alikantarrak eta Sofia Rodriguez valentziarrak garaipena errepikatu zuten azaroaren 1ean Urduñan jokatutako nazioarteko ziklokros proban. Larunbatean Amurrion jokatutako Espainiako Kopako proban ere irabazi zuten, eta asteburuko nagusitasuna berretsi zuten Urduñako hitzorduan. Gizonezkoen lasterketan Orts nagusitu zen, helmugan 22 segundoko aldea aterata Rodrigo Inguanzo kantabriarrari. Raul Mira alikantarrak osatu zuen podiuma, irabazlearengandik 37 segundora. Hala, Inguanzok eta Mirak aurreko egunean Amurrion lortutako postuak trukatu zituzten. Emakumezkoen proban, berriz, Sofia Rodriguezek gogotik egin behar izan zuen lan garaipena eskuratzeko. Valentziarrak bi segundoko alde estuarekin gainditu zuen Lucia Gonzalez asturiarra, eta Lea Stern suitzarrak osatu zuen podiuma. Rodriguez nagusi izan zen aurreko Espainiako Kopako probetan ere, Sieron eta Amurrion.

Kirola

MILA LAGUN BAINO GEHIAGO ELKARTU DITU AURTEN GOROBEL IBILALDIAK, MENDIZALETASUNAREN JAI ERRALDOIAK. MARKA GUZTIAK HAUTSI ETA INOIZKO IBILBIDERIK LUZEENA PRESTATU ZUTEN MENDIKO LAGUNAK TALDEKO KIDEEK.

Mila mendizale Gorobeleko bidezidorretan barrena

Argazkiak **Endika Larrazabal Escuza**

Mila lagunetik gora elkartu ziren igandean Gorobel Ibilaldiaren XL. edizioan. Amurriotik abiatu ziren mendizaleak, eta goiztiarrenek 60 kilometroko zirkuitua osatu zuten, Mendiko Lagunak Taldeak inoiz antolatutako ibilbiderik luzeena.

Izan 60 kilometroko ibilbidea, 27 kilometroko ertaina edo 10 kilometroko txikiena, proposamen guztiek Gorobel mendilerroko txoko ikusgarrienak zeharkatu zituzten. Goizale aterpea izan zen eguneko epizentroa. Bertan, mokadu beroa hartu zuten ibilaldira batu ziren ehunka mendizaleek.

Ikusi Gorobel Ibilaldiko argazki guztiak Aiaraldea.eus atarian.











Herriko plaza



Naia
Zorionak gure Pipi Kaltzaluze! Bihurri aurpegia ez zaizu urteekin joan! Maite zaitugu!

Lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 18an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.


Denborapasak

SUDOKU ERRAZA


			7		3			5
3	7			2				
9	5		8			3	7	2
			4					7
		3				9		
		2			6	8	5	
	3		6	8		7		1
	2		9		7		8	
			1		2	4		9

SUDOKU OSO ZAILA

			4					
8	6							
	3			2	5			
6							5	4
4		5		3		7	8	
	8			7		3	2	
			6				4	
2	5		9					
			8				3	



GREKO MATEA



Zuriek jokatzen dute eta mate egiten dute.
Amurrioko Xake Taldea

DENBORAPASEN SOLUZIOAK
Sudoku eta xake partiden soluzioak webgunean ikusgai: www.aiaraldea.eus/denborapasak

Zozketa



Jon Iturregi idazle laudioarraren *Oroimenaren hirietan aldaroka* liburuaren ale bate zozkatuko du Aiaraldea Komunikabideak

Parte hartu!

***Oroimenaren hirietan aldaroka* Jon Iturregi idazle laudioarraren liburuaren ale baten zozketa** Zozketaren data: Azaroak 19, 12:00etan

Herriko plaza

Boluntarioen Txokoa Dozenaka inurriren lan ikusezin eta isilari esker egiten du aurrera Komunikabideak. Badira hamaboskariak euren auzoan banatzen dituztenak. Badira argazkiak bidali eta albisteen berri ematen dutenak. Guztiak dira ezinbestekoak. Haiei guztiei esker ona eta ahotsa ematea besterik ez dugu.



JON BARRENENGOA
KOLABORATZAILEA

“JARRAITZAILE GEHIENAK PASIBOAK DIRA, EDUKIAK IKUSTEN DITUZTE, BAINA EZ DUTE ELKARRERAGITEN EDO IRUZKINIK EGITEN”

Influencer gisa definituko zenuke zure burua?

Ez. Sare sozialetan hasi nintzenean, mundu hau ez zela niretzat pentsatu nuen. Pertsona lotsatia naiz, eta batzuetan ez naiz eroso sentitzen egiten dudan lanarekin, lekuz kanpo sentitu naizelako hainbat egoeratan. Egia da, batez ere hasieran, banuela sentimendu hori. Orain, ordea, erosoago nago; baina, hala ere, askotan galdetzen diot neure buruari: “Zer egiten dut nik hemen?”.

Nola sortu zen Amurrio Gaur? Zein izan zen proiektuaren abiapuntua?

Osasun-arazo bat izan nuen, eta ordura arte egiten nituen gauza asko alde batera utzi behar izan nituen, kirola, esaterako. Horren ondorioz, Laguntza elkartean boluntario gisa hasi nintzen. Elkartea Amurrion zegoen, baina ni sartu eta urtebetera itxi zuten.

Elkartean nengoela, Instagram kontu bat sortu nuen haren jarduerak zabaltzeko. Oso azkar hazi zen, eta 3.000 jarraitzaile inguru izatera iritsi zen. Garai hartan, Laguntza elkartea nahiko ezezaguna zen, eta kontuak aukera eman zuen egiten zuen lana ikusarazteko.

Elkartea elikagai-bankuarekin elkarlanean aritzen zen, eta arropa-bilketak ere antolatzen genituen, gaur egun babes zibila dagoen lekuan.

Elkartea itxiko zela argi ikusi nuenean, profila bizirik mantentzeko beste eduki mota bat argitaratzen hasi nintzen, batez ere paisaien argazkiak. Eduki-aldaketa horrek harrera ona izan zuen, bereziki Amurriokoa izanik kanpoan bizi zen jendearen artean, herrian gertatzen zenaren berri izateko balio baitzien.

Hala ere, elkartea itxi zenean, kontua ere itxiko nuela iragarri nuen. Orduan, jarraitzaile askok idatzi ninduten, esanez ezin nuela profila itxi, argazki onak egiten nituelako. Horrek beste norabide bat hartzera bultzatu ninduen: izena aldatu eta Amurrio Gaur sortzea erabaki nuen.

Informatikan trebea naiz. Mantentze-lanetan aritu nintzen, eta erretiroa hartu aurreko azken urteak ordenagailu baten aurrean eman nituen. Beraz, sare sozialen funtzionamendua ez da oztopo izan niretzat.

Izenari dagokionez, ez dut gogoratzen zehazki nola bururatu zitzaidan. Ez nuen izen konplexurik nahi, eta argi neukan Amurrio hitza agertu behar zela. Hortik aurrera, beste profil batzuk ez kopiatzen saiatu nintzen.

Herrian ekitaldi asko izaten dira. Nola antolatzen duzu zure lana? Egutegirik edo programaziorik erabiltzen duzu?

Ez daukat programazio zehatzik, baina asko paseatzen dut. Egunean zehar antolatzen diren ekitaldiak jarraitzen saiatzen naiz. Ez naiz gehiegi estutzen, baina ahalegintzen naiz ahalik eta gehienetara joaten.

Batzuetan, paseatzera atera aurretik erabakitzen dut argazkirik ez ateratzea, baina azkenean beti amaitzen dut argazkiak egiten. Nire buruari galdetzen diot: Nola ez diot argazki bat aterako?

Herriko eta inguruko leku askotan ibiltzen naiz. Egia esan, errepertorioa agortu zait: inguruko mendi guztietatik ibili naiz, Olabezarren, Saratxon, Aldaman... Atzo, esaterako, Goikomendin egon nintzen.

Nolakoak dira zure jarraitzaileak? Harreman zuzena duzu haiekin? Kritikak edo gorroto-mezuak jaso izan dituzu?

Ez dut gorroto-mezurik jasotzen, nire iritzia ematen ez dudalako, beharbada. Argazkiak argitaratzera mugatzen naiz, eta noizean behin erreportajeren bat egiten dut, datuetan oinarrituta.

Batzuetan, herrian gaizki dagoen zerbaiten berri ere ematen dut, baina ez dut inoren aurka zuzenean jotzen. Egoera aipatu besterik ez dut egiten, eta horren ardura duenak jakingo du zer egin behar duen.

Bestalde, ohartu naiz jarraitzaile gehienak pasiboak direla, edukiak ikusten dituzte, baina ez dute elkarreragiten edo iruzkinik egiten, gutxi dira parte hartzen dutenak.

Hala ere, “Non dago?” atalean badago parte-hartzea. Atal horretan, Amurrioko txokoen argazkiak argitaratzen ditut, eta jarraitzaileek zein lekutan dauden asmatu behar dute. Azkenaldian, gazte gehiago parte hartzen ari direla nabaritu dut, joko horri esker.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus | agenda@aiaraldea.eus | erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus | 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54 | 688 84 81 52
Webgunea: www.aiaraldea.eus

Erredakzioa: Garazi Cuadra Alvarez, Aitor Aspuru Saez, Txabi Alvarado Bañares eta Aimar Gutierrez Bidarte.

ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Komunikabideak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI: Aitziber Alava, Josu Zabala, Gemma Corbella, Endika Arribas, Gorka Chamorro, Ane Izquierdo, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku, Iratxe Murias, Ander Huidobro.

LIZENTZIA: DOAN ETA LIBRE
Aiaraldea komunikabideko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, Aiaraldea Komunikabidea daramatzatenentzat soilik.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniega Udala · Arrankudiaga-Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondo Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

araba álava foru aldundia diputación foral

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

HEZKUNTZA

Irakurketa gunea



URTE OSOKO ARDURA

Idazlea: Leo Lionni
Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni
Argitaletxea: Pamiela
Naturaren zikloak azaltzen dituen album ilustratua da honakoa. Bi saguren zuhaitza deskubritzen dute eta berarekin batera abentura ezberdinak bizitzen dituzte urte guztian zehar.



KUTXIDAZU BIDEA IXABEL

Idazlea: Joxean Sagastizabal
Argitaletxea: Alberdania
Adina: 12 urtetik gora
Euskara ikastera baserri batera doan gazte baten abenturak jasotzen ditu eleberriak. Oos arin irakurtzekoa da eta barrez lehertzeko pasarteak dituena. Euskara, maitasuna, laguntasuna bezalako gaiak lantzen ditu.

JOLASGUNEA

MAGIA

Kartekin egin daitekeen magia truko bat erakutsiko dizuet. **21 karta behar dira.**

Ikusleari karta bat aukeratzea eskatuko diogu. Gero nahastu karta guztiak.

1. Kartak, buruz gora, hiru multzotan jarri. Iksuleari esan bere karta zein multzotan dagoen. Multzoak batu eta karta dagoen multzoa erdian kokatu.
2. Mugimendu hau hirutan egin.
3. Karta guztiak dituzula, zenbatu eta aukeratutako karta beti egongo da 11. posizioan



KEXKAMUXELAK



MATERIALAK

- Artilea (bi kolore)
- Haria
- Artaziak
- Egurrezko abalorio bat
- Errotulki fina

ZER DA?

Kexkamuxelak, etxeetan, ohearen inguruan izateko panpin txikiak dira. Normalean burkoaren azpian jartzen dira edo bestela ohearen ondoan. Bi erabilera dituzte; Kexkamuxelei norberaren kexka eta arazoak kontatu ahal zaizkie eta hauek gorde egiten dituzte. Bestetik, ametsetan amets gaizto bat sartzen bada, kexkamuxelek hauek jaso egiten dituzte.

NOLA EGITEN DA ESKULANA?

1. Bi artile matazekin, borobilak osatu eta 20-30 buelta emanez. Erditik lotu. Artileetako bat ilea izango da eta bestea gorputza.
2. Goputzaren artile borobilak, hariarekin erditik lotu eta egurrezko abalorio borobilaren zulotik sartu hari hori. Hari horrekin ilea izango den artilea ere lotu.
3. Ilea goitik moztu eta gorputza ere.
4. Gorputza erditik lotu hari batekin eta dekoratu
5. Abalorioan begiak eta ahoa margoztu.

Horrela osatuko dugu gure Kexkamuxela. Ohe azpian jarri eta lasai amets egin!

KO KO- RI KO

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Azaroa

Azaroan sartuta gaude, gauak guztiz irabazi dio egunari. Gaueko indartsu dabil gure kaleetatik zehar. Hotzak gainera, gaua are ilunagoa egiten du. Natura itzali da eta aro berri baterako prestatzen hasiko da. Hibernatzen duten animaliak azaroa aukeratzen oi dute bere kobetan sartzeko, hala hartza loaldi sakonean sartzen da, karakolak bere oskolean sartzen dira edo saguzaharrak ere geldirik mantentzen dira.

Gure inguruko izaki bizidunak barrura begira jarri dira, lurra indarberritzen hasiko da fruitu gutxiago emanez, zuhaitzek bere hosto zaharrak botatzen dituzte aro berriaren zain, urtxintxak ere prestatu egiten dira negurako jakiak bilduz.

Azaroan natura barrura begira jartzen den modu berdinean, gizakiak ere (naturaren parte garen heinean) barrura begira jartzen gara. Gaur egun geroz eta deslotuago gaude naturarekiko, saiatzen gara bizkarra ematen naturaren aldaketei. Horrek ordea gertatzen zaizkigun aldaketak ez ulertzea dakar. Garai honetan gizakion gorputzek ere aldaketak nabaritzen dituzte, gure emozioak ere askoz barrurago kokatzen dira, aterpean egoteko gogo handiagoa dugu, loa luzeagoa izatea behar dugu. Udaberrian eta udan izan dugun kanporako eta handitze prozesuak bere bukaera izan du eta orain uzkurtze garaian sartu gara.

Errespetatu ditzagun erritmoak, entzun dezagun gure gorputza, entzun ditzagun gure haurren gorputzak eta errespetatu ere gure inguruko haurren erritmo naturalak. Ezinbestekoa da hauek ondo hartzea errespetuzko haziera baterako. Naturarengandik konektatuago bizi bagara, hobeto ulertuko dugu gure burua eta hobeto ulertuko ditugu gure inguruko haur eta nerabeak.

Aiaraldeko Hezkuntza Faktoria




Itzala

Zein da eszena honen itzal zuzena?

Handienetik txikienera

Ordena itzazu zazpi kuia hauek handienetik (1) txikienera (7).



Zeeeeerrr?!

Zure ustez, zer esan dio zonbi batek besteari gurutzatu direnean? Idatzi bunbuiloan.
Bide batez, margotu irudi osoa.



Soluzioak



Kontra
Mundutik Aiaraldera



JENNI CUELLAR

JAIOTERRIA
CUCUTAN (KOLONBIA)

BIDAIAREN XEDEA
KOLONBIAN LANA BAZUEN ERE, EUSKAL HERRIRA ETORRI ZEN BERE EGOERA HOBETZEKO ETA FAMILIA LAGUNTZEKO ASMOZ.

KOLONBIA



DESKRIBAPENA
Kolonbiako Errepublika Hego-Amerikako ipar-mendebaldeko estatu burujabea da. Hego-Amerikako laugarren herrialderik handiena eta bigarren populatuena. Bogota da hiriburua.

AZALERA
1.141.748 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
53,4 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Gaztelania da ofiziala. San Andres, Providencia eta Santa Catalina artxipelagoa departamenduan, ofizialak dira ingelesa eta San Andres eta Providenciako kreolera ere. Beste zenbait hizkuntza amerindiar hitz egiten dira Kolonbian: chibcha-paez mintzairak, wayuunaiki, wam...

“JOSE MARIA AZNARREK EGINDAKO ERREGULARIZAZIO JENDETSU BATEAN SARTU NINTZEN ETA IA 28 URTEZ KOTIZATU DUT”

Oso ezberdina zen bizitza Kolonbian?

Nik 16 urterekin amaitu nituen batxilergo ikasketak eta hona etorri nintzen 19 urterekin, 1998an. Hiru urte eman nituen aurretik Aviancan, hegaldi konpainia batean.

Hala ere, hona heltzean nire titulu guztiek ez zuten ezertarako balio izan, atzerapausoa izan zen eta pentsatu nuen itzultzea. Ez zen nik espero nuena.

Atzerapauso horrek zer ekarri zizun?

Edozein etorkin bezala hasi nintzen. Neguriko etxe batean hasi nintzen barne-langile moduan umeak ikasten. Nire kurrikulumak ez zuen ezertarako balio, ez nengoen erregularizatuta, oso zaila zen dena. Getxora igaro nintzen emakume bat zaintzera ea horrek ematen zidan aukera ikasteko eta egoera erregularizatzeko. Bide batez, hori egin nuen Jose Maria Aznarrek egindako erregularizazio jendetsu batean. Horrela ekin nion kotizatzeari eta ia 28 urtez egin dut geroztik.

Edonola ere, nik zaintzen nuen emakumeak ezagutzen zuen Tere, Arespalditzako nagusien egoitzako zuzendaria, eta etortzen ginen bera bisitatzen. Berak proposatu zidan barne-langile moduan hastea Arespalditzan. Ni kontabilitate ikastaro batzuk eginda nituen eta euskara ikastea zaila egiten zitzaidan, egun osoa lanean bainengoen. Bizirauten nuen eta Kolonbiako familiari ere laguntzen nion.

Hortaz, Arespalditzan hasi nintzen lanean eta nahiko surrealista izan zen Kolonbiako mugatik heltzea hona. Ezin nuen hegaldi agentzia batean lan egin (Iberian edo beste batean), ez nituelako ikasketak erregularizatuak ezta euskara ere.

27 urte daramatzat hemen. 2009an landa eremuko arreta zentroa ireki zuten eta une horretan lan murrizketaldian nengoen semeak zaintzeko, baina 2010etik zentroaren arduradun izateko aukera eman zidaten.

Kontrastea handia izan zen hona etortzean?

Nik ez nekien hemen euskara hitz egiten zenik. Banekien bezeudela bi hizkuntza, hori bai. Hori gogorra izan zen Negurin, gutxiespenak sentitu bainituen. Saiatzen zara alboratzen, baina Neguritik ateratzen nintzenean zaintzen nuen umearekin, bazegoen jende nagusia mespretxuz hitz egiten zidana euskaraz. Ez nekien zer esaten zuten, baina agerikoa zen zerbait itsusia zela euren jarreragatik.

Hori izan zen bizi izan zenuen egoera zailenetarikoa?

Emakume gaztea nintzen, 20 urtekoa, eta emakume etorkin askori bezala, saiatu ziren ni emakumezkoen salerosketaren mundura eramaten. Egoera ugariri aurre egin nien eta babesa topatu nuen Aiarako haranean. Babestu naute, ondo sentitu naiz, jende nagusiarekin lan egin dut eta mundu berria ireki didate. Falta zait hizkuntzarekin askatzea, baina erabat integratuta sentitzen naiz.

Aipatu duzu emakumeen salerosketa, nabaritu zenuen bide horretatik eramateko interesa zutela?

Bai, baina nire ama oso katolikoa zen eta eragina nabaritu dut. Horrez gain, mugan bizi ondoren, egoera asko ikusita nituenh. Prostituzioa, adibidez, bazeuden emakumeak horretan aritzen zirenak seme-alaben ardurekin eta ikasketak ez zituztenak, eta bizitza zailak zituzten.

Nik trebakuntza nuen jadanik hona etorri nintzenean eta nire sentsazioa zen nire kabuz aurrera egin ahal nuela. Prostituzio sareek baliatzen dute maiz emakumezko gazteak direla, arazo ugarirekin.

Ikusi nituen nire lankide batzuk Negurin, zeinak “etxebizitzetara” joaten ziren. Niretzat ez zen inoiz erakargarria izan, baina proposatu zidaten hamaika aldiz. 20 urte nituen. Babestu nintzen eta ezezkoa esan nion.

Mundu arriskutsua da, ez dakizu inoiz non amaituko duzun eta batzuei hori egokitzen zaie egoeraren ondorioz, baina mundu delikatua da. Batzuk sartzen ziren “etxebizitza” horietan euren ama ekarri nahi zutelako, adibidez.